


ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia
estreinatuko dugu
domekan: goizeko
hiruretan, ordu
biak izango dira.



Goenkale, berpizkundea

Telesail mitikoa emititzen hasi zirela 30 urte bete dira. Anabel Arraizak "oso oroitzapen ona" du, eta "aktoreen eskola" izan zela gogoratu du / 2-4



Urriak 31: Gau Beltza / 21

Bost herritako arakildarrek ez dute garraio publikoko autobusik hartzeko aukerarik / 6-7


Altsasuk, ostegunetik aurrera lau egunez, Gazte Topagune Sozialista hartuko du / 12

Irañetako ur biltegiko lanak despedituta, ura garbiago iritsiko da irintarren etxeetara / 11

Joanes Bakaikoak ongi hasi du Lau eta Erdiko B Seriea; "disfrutatzeko unea" dela uste du / 18-19

Arte Azokaren hamahirugarren edizioa mustu dute; Sakanako artisten erakusleihoa / 23

SINADURAK



Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

ETB1eko Goenkale telesail mitikoa mustu zela 30 urte bete dira. Estatuko telesail luzeena izan zen: 21 denboralditan eskaini zen, eta 3.707 kapitulu izan zituen, 1.854 emisio ordu guztira. 1994ko urriaren 3an hasi zen telesaila, eta 2015eko abenduaren 28an despeditu zen, telebistako euskarazko fikzioan hutsune erraldoia utzita. Goenkaleko protagonistetako bat Sara Garmendia zen, Anabel Arraiza Artieda lakuntzarrak antzeztzen zuen Arraldeko neska gaztea.

GOENKALE, HASIERAK

Oraindik norbaitek Sara izenez deitzen al dizu?

Bai. Esaterako, ETBko jantzigiko arduradunak Sara gisa ezagutu ninduen, eta ez zaio sartzen Anabel naizela. Eta kaletik ere bai. Landa eremutan asko ikusi da Goenkale, eta horiendako Sara naiz oraindik.

Goenkalek 30 urte, erraz esaten da. Horrek esan nahi du urte mordoxka bat baditugula (kar-kar). Hasieratik Goenkale.

Bai, hasiera-hasieratik. Nire pertsonaia bosgarren kapituluari hasi zen. Oso ongi gogoratzen dut 94ko uda hura. Ni Lakuntzako igerilekuetan nengoen lanean, eta hara deitu zidaten esanez Goenkalerako hartu nindutela. Aurretik etxera deituko zuten, ziurrenik, eta amak igerilekue-takoa emango zien. Orduan ez zegoen mugikorrik. Abuztu bukaeran jada lanean hasi ginen. **Aurretik Mirentxu Purroy zuzendariarekin 'Denboraren gibelean' filmean aritu zinen. Bertatik egin zenuen salto Goenkalerara?**

Ez. Mirentxu Purroyren filma ikastolan ikasten ari nintzela egin nuen. 16-17 urte inguru izango nituen. Goenkaleren castinga 18 urterekin egin nuen. Gerora zineman script lanetan aritu izan den Asier Andueza iruindarra-ekin joan nintzen. Hark esan zidan: "casting bat egiten ari dira... goazen!" Eta han joan ginen biak, abenturara. "Zuk jada filme bat egin duzu" esaten zidan. Eta nik: baina ze uste duzu? Horre-



Anabel Arraiza Goenkaleko lehen denboralditik ikusi genuen pantailan Sara Garmendia antzeztzen. Zortzi denboraldiz egon zen.

"Goenkale, naizena izateko nire oinarria izan da"

ANABEL ARRAIZA ARTIEDA AKTOREA ETA TELEBISTA AURKEZLEA

Goenkale telesaila mustu zela 30 urte bete dira. Anabel Arraiza aktore lakuntzarrak "oso oroitzapen ona" du, eta zortzi urtez bere aktore eskola izan zela argi du

gatik hartuko nautela?" Miramon estudioetara joan ginen biak. Urduri nengoen... izugarri. Uste dut nire urduritasuna castingerrako baliatu nuela. A ze erremedio, etzegoen besterik!

Castinga nolako zen?

Gogoratzen dudana da hasierako zuzendari Joseba Gardeazabalek egin zidala proba, eta beste bi pertsona zeudela. Zenbait proba ziren; tartean testu txiki bat ere

eman zidaten, baina ez dut gehiago gogoan. Urte asko pasa dira! **Telesailerako hartuko zizutela espero al zenuen?**

Sorpresa izan zen. Egia esan, dena oso azkarra izan zen. Per-

tsonaia prestatzeko astebeteko prestakuntza saioa egin ziguten eta abuztuan bertan hasi ginen. **Goenkale pentsatzen dugunean burura datozkigu Arralde, Boga taberna, Maria Luisa, Joxe Mari, Hortentxi, Txapas, Gaizka, Sara... eta beste hamaika pertsonaia. Sara nahiko emakume dramatiko zen, ezta? Beti zerbait gertatzen zitzaion. Beno... Sara nolako ez zen izan! Neska kuadrilla gazte bat zegoen Arralden, tartean Sara. Hasieran neska hau pixka bat arina zen, eta bazuen ondoan fundamente gehiago zuen beste neska bat. Hala ere, Sarari denetatik gertatu zitzaion: bere aita kartzelan zegoen, aita kartzelatik ateratzeko dirua lortzeko bere nagusiarekin egin behar izan zituen egin beharreko guztiak... eta atzetik etorri zen guztia.**

Buruaz beste egiteko saiakera egin zuen. Ildo honetan, gai serioak lantzen ziren Goenkale, gai sozial asko.

Bai, pila bat. Goenkale euskal kulebroi baten gisara sailkatu da beti, eta baditu halako elementu pila bat, baina egia da orduko gizartean gertatzen ziren gauzekin lotura handia zuela. Telesaila egunean kokatzen saiatzen ziren, bai gertakariekin eta baita ere gai sozialekin.

Egunero emititzen zen.

Hasiera hartan ezinezkoa zen inork Goenkale ez ikustea. As-telehenetik ostiralera emititzen zen, gauero; hurrengo egunean errepikapena ematen zen, eta asteburuetan, bai larunbatean bai igandean, bost kapituluak ematen ziren segidan.

Egunero atal bat: horren atzean lan karga izugarria egongo zen.

Bai. Hurrengo astetako bost gidoiak aste beteko aurrerapenarekin ematen zizkiguten. Bost egunetan bost kapitulu egiten genituen, baina orden bat segituz: lehen lau egunetan, 7:00etatik 15:00etara, barruko sekuentzia guztiak grabatzen genituen Miramonen, eta asteen behin Oriora joaten ginen kanpoko sekuentziak grabatzera, Orioko plaza baitzen (kar-kar). Orioko plaza oso ezaguna egin zen.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



Ikusleok trama bat ikusten dugu, sekuentzien garapena. Baina zuek ez dituzue sekuentziak ordenean grabatzen. Zaila izango da.

Sekuentzia bat grabatu baino lehen aurreko sekuentzian zer gertatu zitzaidan pentsatu behar izaten nuen. Kosta egiten da. Horregatik, platora sartu aurretik beti sekuentziak entseatzen genituen. Goizetan grabaketak egiten genituen, eta arratsaldeetan hurrengo eguneko gidoia ikasten genuen. Izan ere, sekuentzia pila bat grabatzen genituen, sei-zazpi sekuentzia egunero. Eta hori asko da ikasteko.

Lan nekeza zen?

Bai, baina ni gazte harrapatu ninduen, ikasketen garaian, eta memorizatzeke arazo handirik ez neukan. Interpretazio kontua, hori beste gauza bat da. Pertsona helduagoek arazo gehiago zituzten memorizatzeke. Gogoan dut Kontxu Odriozolak (Maria Luisa) bere gidoietan marrazkitxoak egiten zituela, memorizatzen laguntzeko. Sekuentzia asko zituen, eta lan handia.

Nolako harremana zenuten lan taldean?

Super ona. Familia bat ginen. Egun, askotan gogoratzen dugu orduan sortu zen giroa, bai aktoreen artean, bai teknikarien artean... 100 pertsona inguru geunden lanean egunero, eta ordu pila bat sartzen genituen elkarrekin. Beraz, oso harreman ona genuen. Kanpoko ekintzak ere egiten genituen, bazkariak eta beste. Gainera, gutako batzuk,

"GOENKALE EUSKAL KULEBROI BATEN GISARA SAILKATU DA, BAINA ORDUKO GAI SOZIALEK ISLA ZUTEN"

"LAN TALDEKOEK OSO HARREMAN ONA GENUEN. FAMILIA BAT GINEN. ELKARREKIN BIZI GINEN BATZUK"

"GOENKALE AKTOREEN ESKOLA BIHURTU ZEN: ZORTZI URTETAN NIRE ESKOLA IZAN ZEN"

kanpokoak ginenak, elkarrekin bizi ginen. Ni Donostian bizi nintzen beste bospasei aktoreekin batera. Goenkalekoak, eta produktora berdineko beste programako kideak ere. Klaudio Landa, esaterako, nirekin bizi zen Donostiako pisu hartan.

Beraz, 24 orduko bizipena zen.

Guztiz. Gazteak ginen, eta gauak ere ederki probesten genituen. Badakizu zer den gazte izatea, poltsikoan dirua edukitzea eta Donostian lagun artean bizitzea? Gozamen.

GOENKALE, FENOMENO BAT

Goenkale berehala zabaldu zen: Euskal Herriko izarrak zineten.

Fenomeno hutsa izan zen. Hitzaldiak ematera joaten ginen. Nafarroako Unibertsitate Publiko areto nagusia lepo bete zen hiru pertsona Goenkaleri buruz hitz egitera joan ginenean. Nola imajinatu behar duzu halako zerbait gertatzea?

Sortzaileek Goenkalek halako arrakasta lortuko zuela espero zuten?

Bai zera! Lau hilabeteko kontratua egin genuen hasieran, luza-garria, telesaila ongi joango balitz luzatzeko aukera ematen zuena. Telesaila lau hilabeteko apustu ikaragarria izan zen, eta, pentsa, 21 urte iraun zuen! Inork ez zuen espero.

Famaren eragina zuzenean naba-rituko zenuten.

Goenkaleren bidez, egunero sartzen ginen jendearen etxeetan; beraien sukaldeetan geunden, beraien herrietan ere gertatzen ziren gauzekin. Oso etxeko bihurtu ginen. Famatuak baino gehiago, ezagunak bihurtu ginen. Eta lagunak baita ere, nik uste. Herrietan, bereziki, harremana oso gertukoa zen. Garai haietan ni ere musikaren munduan nengoen, eta herrietara jotzera joaten nintzenez, jasotzen nuena gozamen hutsa zen.

Zurekin herrietako festetara joatea eromena izango zen lagunendako. Denak gainean...

Beno, gehienbat goizeko 5:00etan izaten zen hori (kar-kar), baina ez dut sekula une txarrik pasatu. Jendea oso ongi hurbildu zait beti, benetan.

Lakuntzan momentuko saioko aktore bat bertakoa izatea bitxia zen. Gainera, Goenkalekoak sarritan etortzen ziren.

Bai, etortzen ziren. Lakuntzako Pertza elkartean behin bazkari bat egin genuen. Bildotsa txilindroi erara, gogoan dut, amak



Anabel Arraiza, ezkerrean, Goenkaleko taldekideekin. UTZITAKOA



Goenkale telesailako promozio argazkia. Anabel Arraiza eskuinean, goian. UTZITAKOA



Anabel Arraiza, Itziar Ituñoren eta Iñaki Beraetxeren artean. UTZITAKOA



Anabel Arraiza eta Joseba Salegi, 'lone igo zerura' grabatzen. UTZITAKOA

prestatutakoa. Batzuk ez zekiten txilindroia zer zen ere (kar-kar). Goenkaleko 30 aktore, Lakuntza batean aske... Jendea etorri zen elkartera gurekin egotera, argazkiak ateratzera...

Zortzi denboraldiz egon zinen Goenkale. Pena eman zizun uzteak edo behar bat ere bazen?

Ez nuen nahita utzi. Sara Garmendia ez dakit non ibiliko den, pertsonaia, behintzat ez zuten hil. Baina justu orduan Sorginen Laratza saioan hasi nintzen, beste produktora batean. Produktoreen artean zu beste batengana joaten bazara gaizki ikusia dago; pike horiek hor egoten dira, eta Sorginen Laratzen hasi nintzelako Goenkalekoa bukatu zen.

AKTOREEN ESKOLA

Goenkale berriro emititzen hasi da ETB1-en, arratsaldez, eta jende asko berriro engantxatu da. EITB-ko webgunean ere ikus daiteke.

Lehenago gaueko ordu txikitzen ere eman dute. Lakuntzar batek esaten zidan semeari biberioia ematera jaikitzen zela, eta Sara ikusten zuela. Eta orain arratsaldez hasi dira. Hori abisatu beharra dago, espero gabe zure burua 30 urte gutxiagorekin ikustea, bestela... (kar-kar).

Nola ikusten duzu zure burua?

Oso arraro. Uste dut zerbait ikasi dudala, hasierako kapitulu haietan behintzat oso berde ikusten baitut nire burua. Berde-berdea. Nik ez nuen ez antzerkirik ez halako ezer ikasi, eta pila bat nabaritzen zen. Egia da gero Goenkale aktoreen eskola bihurtu zela: zortzi urtetan nire eskola izan zen.

Zer diote seme-alabek Goenkale ikusten dutenean? Nagusienak zure antza handia du eta Goenkaleko Sara bera dela dirudi.

Beraiek bazekiten beraien ama Goenkale ibilia zela. Baina Maddik ni ikusi ninduen lehenengo gauza esan zuen: "A, ni naiz!" Berak bere burua ikusten zuen Goenkale. Antza handia dugu, bai.

Gustatzen zaie bere ama Goenkale ikustea?

Ez dakit gustatzen zaien edo ez, baina ez dira telesaila ikustera gelditzen. Ez dira engantxatu. Arraro egiten zaie. Ez dakit zer sekuentzia mota ikusi dituzten, baina ikusten badute beraien ama, besteren batekin hor lardaskan, ez dakit zer pentsatuko duten. Ez da beraieendako samurra izango.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Goenkale Euskal Herriko aktore pila batendako eskola izan zen 21 urtez. Gaur egun aktiboan dauden euskal aktore gehienak bertatik pasa ziren. ETB-ri asko kritikatzan zaio Goenkale garaitik halako fikziozko euskarazko produkturik ez egitea.

Egia da, guztiz.

Gainera, Goenkalek 100 pertsonari jana ematen ziela kontuan hartuta, hor hutsune handi bat dago.

Oso handia. Garai haietan, Goenkalez gain, Jaun ta jabe, Bi eta bat, Flamingo berria... halako telesailak zeuden. 13 kapituluko serieak izaten ziren, 3 hilabeteko lanak. Goenkalek 10 hilabeteko lana ematen zion aktoreari, eta 21 urte izan ziren. Egun platoak ez daude hutsik, lehiaketak eta zuzeneko saioak egiten direlako, baina Miramonen ez da fikzioa egiten. Ea zerbait egitera bueltatzen diren. Alkain, mesedez, etorri! (kar-kar).

EUSKARA

Goenkalek euskarari sekulako bultzada eman zion. Euskara arduradun bat zenuten, eta euskarazko esamoldeak eta beste lantzen ziren.

Bai, hika ere sartzen hasi ziren. Platoan bagenuen euskara zuzendari bat; beti egoten zen euskara zaintzen eta lantzen. Eta hori faltan botatzen da orain ETB-koprodukzioetan. Edukietan nabaritzen da. Euskara zuzendariak bertan beharko luke. Goenkalek ekarpen handia egin dio euskarari. Euskaltegietan zenbait kapitulu ikusten zituzten, euskara landu eta belarria egiteko. Ordura arte informatiboetako euskara entzuten genuen, euskara oso zuzena eta jantzia, eta Goenkalek bazuen beste gertutasun hori. Sobia tabernan muztioa eskatzen genuen aldiro nik esaten nien: "muztioa ez, mosto bat eta kitto". Agian gehiegizkoa zen zainketa hori. Baina "hori egina zagon" eta halako espresio asko geratu ziren. Euskaraz espresio kolokial horiek falta zaizkigu. Euskaraz ez dugu "en plan" esateko hitzik. Edo agian egon badaude, eta ez ditugu erabiltzen. Horiek falta zaizkigu.

Goenkaleko ibilbideaz zein oroitza-pen duzu?

18 urterekin joan nintzen Donostiara eta ama izan arte hor egon nintzen. Nire etapa hori %200ean bizi izan nuen. Oso oroitza-pen ona daukat, eta naizena izateko nire oinarria izan da. Egin ditudan gauzak egin ditudala, horri esker izan da.

SALEGI, 'IONE IGO ZERURA'

Aurten ere 25 urte beteko ditu Joseba Salegi zuzendari altsasuarraren 'Ione igo zerura' filmaren mus-tutzeak. Zu protagonistetako bat zinen. Klausura moja komentu batekoek beraien zaindaria nola-baiteko santua zela uste dute, eta zinemagile batzuk kontratatzen dituzte mirarien eta bestelakoan antzezpena grabatzeko. Film bitxia. Bai, mojek omendu nahi zuten beraien komentuko zaindaria edo pertsona hori, eta grabaketak egiteko enkargu bat egiten dute. Filma da zinea zinearen barruan. Eta jakina, klausura komentu horretan oso exajeratuak diren pertsonaiak sartzen dira, eta euren artean kontraste handiak sortzen dira.

Zer moduz joan zen?

Oso ongi, gustura aritu ginen. Zinea lan egiteko beste modu bat da, askoz geldoagoa dena, eta askoz ere gehiago mimatzen dena. 7-8 ordutan kapitulu bat egitetik nentorren, eta ez dakit zenbat ordutan ez dakit zenbat segundo egitera pasa nintzen. Zineman beste zainketa bat dago, eta nabaritzen da. Esperientzia polita izan zen.

BIBA ZUEK, ENTZIERROAK, ERROMERIAK ETA BESTE

Biba Zuek saioan iazko denboraldian koloretako betaurrekoak jantzen zenituen, gai sozialak lantzen dituzten kolektiboek egindako elkar-rrizketak aurkezteko.

Bai, Bizipoza ekimenetik zetorren betaurrekoak jantzi eta gai sozialak lantzeko ideia.

Udan Sanferminetako entzierroetan aritu zara bigarren, eta Faltzesko entzierroetan mustu zara.

Iruñeko entzierroetan bigarren urtea egin dut, gustura, eta aurten bertan nintzela esan zidaten Faltzeseko entzierroak egin behar genituela.

Faltzeseko entzierroen jarraipena sekulakoa izan omen da.

Ikaragarria. Audientzia datuak izugarriak izan dira. Nik galdetzen nion errealizadoreari: "noiztik ez dituzue audientzia datu hauek eman?" Eta erantzuten zidan: "uste dut atentatuak ezkerotik ez ditugula ikusi horrelakoak". Exajeratua izan da, audientzia ikaragarria.

Faltzeseko jendeak nolako harrera egin zizuen?

Oso ona. Faltzeseko jendeak oso ongi erantzun du, eta primerakoa izan da. Baina saioa gaztelaraz izan behar zenez, beldurra nuen.



Anabel Arraiza Iruñean, Julian Galarza tabernaria elkarriketatzen. UTZITAKOA



Erromerian saioko lantaldeko batzuekin, Lakuntzako pikotan. UTZITAKOA

"GOENKALEK EKARPEN HANDIA EGIN DIO EUSKARARI. EUSKARA HURBILA, ESPRESIO KOLOKIALAK, HIKA..."

"GAUR EGUN MIRAMONEN EZ DA FIKZIOA EGITEN. EA ZERBAIT EGITERA ANIMATZEN DIREN"

Deseroso sentitzen al zara gaztelaraz?

Nik ez daukat inongo arazorik gaztelaraz hitz egiteko, baina kamera baten aurrean komunikatzeko orduan ezberdina da. Esaldia euskaraz hasten banaiz, nola edo hala aterako naiz, nire eguneroko hizkuntza delako. Baina gaztelaraz beldur nintzen estropezu egin eta gero ezin atara ibiltze horrekin. Ez dakit ongi edo gaizki, baina salbatu genuen. **Ganadutegian behi eta zezan artean sartu zinenean beldur gehiago izango zenuen...**

Ai ama... Denetatik egin dugu Faltzesen. Baina jendea oso jatorra izan da. Erraza izan da beraiekin lan egitea, beraiek oso prest zeudelako.

Erromerian ikusi zaitugu Euskal Herrian barna. Gainera, herriko erromeria egokitu zitzaizun, Lakuntzako Pertza.

Programa egitea eskaini zidatenean, nik ez nekien. Bederatzi atal ziren, Euskal Herrian barna bederatzi erromeria ezagutzeko. Baietza eman nienean, erromerien zerrenda eman zidaten, eta Lakuntzako Pertza ikusi nuenean sekulako ilusioa egin zidan.

Gehienok pentsatzen genuen zure gauza izango zela; herrira tiratu zenuela.

Ez, inondik inora, paper gainean ikusi nuen. Guztia berezia izan zen, programaren emisioa nire urtebetetze egunean izan zelako. **Eguraldi kaxkarra egin zuen San Miguelen, eta, hala ere, Lakuntzako Pertzako saioa polita geratu zen.** Beldurra nuen. Herrian jokatzeak beti izaten du ardura puntu hori. Baina oso eskertua nago, herriak parte hartu duelako, eta oso natural, oso ongi. Gainera, feed back-a oso ona izan da, lakuntzarak saioarekin gustura gelditu dira. Beraz, ni ere pozik. Erromerian saioek ere oso audientzia onak eman dituzte. Neurtzeko moduagatik ETB1-en batez beste audientzia 1,5-ekoa izaten da, eta Erromerianeko batez beste 4-tik gorakoa izan da. Hori oso emaitza ona da. Ea datorren udan gehiago egiten ditugun.

Orain zertan zabilta?

Biba Zuek saiora astean bitan joaten naiz, eta bitartean Euskal Wikilarietara jarraitzen dut lanean, eta unean sortzen diren proiektuekin. Euskal Herriko Dantza Txapelketa aurkeztu berri dut, EITBko Maratoian ere egonen naiz, eta sortzen diren bestelako proiektuetan.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAIZ

Bizitza perfektua erakusteko beharra

Influencer batzuek eskaintzen dituzten gorputz idealen edo luxuzko bizitzaren argazkiek gazte eta nerabeengan arazo mentalak areagotu ahal dituztela geroz eta argiagoa da. Ikerketek diotenez, %32k Interneten bizitza perfektua erakusteko beharra sentitu duela aitortzen du, horrek errealitatea islatzen ez badu ere.

Idea okerrak helarazten ditu eta hau errealitatea ez dela aitortu beharrean, hausnarketa beste aldera doa: "nik ez dut horrelako bizitza, zer egiten ari naiz gaizki?" Eduki mota hau hainbeste denbora kontsumitzeak errealitate gisa barneratzera bultzatzen gaitzake, eta errua gure buruari egokitzea, horrelako bizitza ez izateagatik.

Eta nola eragiten du horrek gazte eta nerabeen osasun mentalean? Bada, autoestimua gutxitu, autokonfiantza falta, antsietatea, bere buruaren kontrako erasoak... eta, azkenik, buruaz beste egitea.

Profesionalki, geroz eta kasu gehiago iristen zaizkigu horrelako esperientzien ondoren, eta orain nola aurre egin horri? Nondik abiatu?

%32K INTERNETEN BIZITZA PERFEKTUA ERAKUSTEKO BEHARRA SENTITU DUELA AITORTZEN DU

Askotan zaila egiten zaigu ulertzea zergatik gazte bat sentitzen den horrela; beste batzuetan ez dakigu zer egin

horrelako egoeratan. Garrantzitsua da bere ezinegona ez epaitzea edo gutxitzea, eta saiatu enpatiaz eta lasai entzuten.

Denok dugu hemen zer esan; prebentzioa litzateke giltza. Txiki-txikitik emozioak ezagutzearen garrantzia, hauek baliogabetu gabe eta, norbere burua zaintzearen, besteak zaintzearen eta laguntza eskatzearen garrantzia.

Saia gaitzen gure inguruko gazte eta nerabeen osasun mentalaren *influencer* eta ereduak izaten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE-k eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

7/2014 legea. ZIGOR BATUKETA... Salbuespen neurri bat indargabetuta!

SAKANAKO SARE

Aste honetan zalaparta eragin duen legearen aldaketa horiek onartuta, normaltasuna itzultzen da edo, zehatzago esateko, duela 10 urte lortu ez zen normaltasun juridikoan kokatzen gara, garai hartan, borondate politikoak hartaraberritu, legearen testuan ez baitzen jaso Europako zuzentarauak exijitzen zuena.

Eta hala egin zen preso jakin batzuek aukerarik izan ez zezaten beste estatu batzuetan, bereziki Frantzia, preso egindako denbora kontuan hartzeko, espetxean egoteko gehieneko denbora zenbatzeari begira. Legearen asmoari iruzur egin zitzaion.

Alde batera utzita gaiaren inguruan izan den eztabaida itxuragabea, alegia, legearen aldaketa alderdi politiko baten edo bestearen utzikeriaren, arduragabekeriaren edo borondatearen ondorioz gertatu den ala ez, garrantzitsuena da normaltasuna itzuli dela eta

orain Espainiako Estatuak baduela transposizioarako araudi zuzen bat, Europako arauekin bat datorrena.

Alde horretatik, gogoratu behar dugu SARE sortu zenetik, duela hamar urte, gure helburu nagusia izan dela salbuespenen amaiera lortzea, eta orain gertatu denak erakutsi duela arlo politikotik, sindikaletik eta kaletik, SAREren eskutik, urte hauetan behin eta berriz eskatu duguna ez zela pribilegioak ematea, legezkotasuna eta salbuespenen amaiera baizik. 2014an helburua kalte egitea izan bazen, lortu egin zuten, legeak bihurtuz egin behar izan bazuten ere.

Hortaz, aste honetan Espainiako Gorte Nagusiek prozesua bukatu eta beren lana bete dute. Berandu bada ere, arbitrariotasuna bukatu da.

Pertsona askok bidegabeko kartzela urte askorekin ordaindu dute arbitrariotasun

hori. Esate baterako, 15 bat euskal preso dira egun aske daudenak baina zenbait urte lehenago atera beharko zutenak. Juridikoki ez dago modurik pertsona horiei galdu zuten askatasunaren ordaina emateko.

Eta gaur egungo egoerari begiratuta, 52 euskal presok heldu ahal izango diote arau berriari...Esan beharra dago, halaber, erabateko gezurra dela esatea auzitegiek preso horiei ezarritako zigorra laburtzen dela. EZ. Honekin bukaera ematen zaio zigorra bi aldiz bete behar izateari.

Luzaroan itxaron dugu salbuespen arbitrarioak zekarren egoera buka zedin, eta orain behar dena da legearen aplikazioarako prozedurak azkartzea, zigorren zenbaketa egin behar duten auzitegiek prozedura horiek oztopatzeko maniobra bidegabekeri egin gabe.

Etixerako bidean beste urrats garrantzitsu bat! ETXERA!

HIZKETAN

Entzun GUAIXE IRRATIko elkarrizketa guztiak

guaixe.eus/irratia/hizketan



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langaika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Altzela Irarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Arakil erdia autobusik gabe

Aizkorbe, Izurdiaga, Egiarreta, Ekai eta Satrustegiko biztanleak autoa erabiltzera behartuta daude. Edo autobusak gelditzen diren aldameneko herrira oinez joatera. Aizkorbeiko geltokiak eta Ekai eta Satrustegiko markesinek araudia ez dute betetzen

Alfredo Alvaro Igoa ARAKIL

Nafarroako Gobernuak autobus bidezko bidaiarien kontzesio berria eman zuenetik, NBus zerbitzuko autobusek ez dute Aizkorben, Ekain eta Satrustegin gelditzen. Bertako herritarrek autobusak pasatzen ikusten dituzte, besterik ez. Gainera, inolako autobus zerbitzurik ez dute Aizkorben eta Egiarretan. "Arakil erdia garraio publikorik gabe dugu kasik. Lotsagarria da! Ezin dira halako egoerak normalizatu", kexu da Oihana Olaberria Jaka alkatea. "Despopulazioaren kontra egiteko funtsezko elementuak etxebizitza eta garraio publikoa dira, eta bietan Arakilen hankaz gora gaude", gaztigatu du.

Ekai kontzeju buru Patxi Uharte Garrok azaldu duenez, "Nafarroako Gobernutik esan digute markesina ez dagoela toki egokian, ez dituela baldintzak betetzen eta arriskutsua dela". Ekaidarrak esandakoa berretsi du Satrustegiko kontzeju buru Jose Antonio Angulo Bachillerrek: "Satrustegiko markesinak ez du autobusak gelditzeko araudia betetzen. Eta arriskutsua denez, zerbitzua eskaintzeari utzi zioten". Zehaztu duenez, "autobusak sarre-irteera errailak beharko lituzke markesinaren ondoan, eta parean. Hiriberritik etortzean autobusak errepideko arrasto jarraituak zapatzen ditu. Zuhatzutik etortzean bidaiariak bide ertzean utziko lituzke eta arriskutsua litzateke". Araudira egokitzeko, besteak beste, espaloiak egin beharko lirateke. Hala egin zuten duela bi urte Zuhatzuko eta Hiriberri Arakilgo kontzejuak. Angulok gogorarazi du Ekai, Zuhatzu eta Satrustegiko markesinak Nafarroako Gober-

nuak eraiki zituela Sakanako Autobia (A-15) egin zuenean.

Horren guztiaren ondorioz, herritar batzuk autobusa hartzeko Etxarrenera, Zuhatzura edo Hiriberri Arakilera oinez joaten dira. Baina errepideak ez du bide bazterrik, eta goiz iluntzen denean arriskutsua dela gaztigatu dute bi kontzeju buruek. "Pena da garraio publikoa erabiltzeko aukerarik ez izatea, trabak besterik ez ditugu". Egoera bera bizi dute Aizkorbe, Izurdiaga eta Egiarretako herritarrek. Aizkorbeiko kasua bitxia da. Araudia betetzen ez delako Burundesa enpresako autobusak ez dira bertan gelditzen. Bai, ordea, Mugioarra eta Leitzaran enpresetakoak. Irurtzundarrak han jaitzi eta herrira oinez joaten dira.

Garrok nabarmendu duenez, "foru administrazioan gai horrekin buelta pila eman ditugu, alferrik. Ez dirudi eskaera beraztertuko dutenik". Angulok esan duenez, "Herri Lan Zuzendaritza Nagusitik Garraioko Zuzendaritza Nagusira bidali izan gaituzte, eta alderantziz. Araudia betetzeko zer egin behar dugun ez digute esaten, eta ez

"DESPOPULAZIOAREN KONTRA EGITEKO FUNTSEZKOAK DIRA ETXEBIZITZA ETA GARRAIO PUBLIKOA"

"PENA DA GARRAIO PUBLIKOA ERABILTZEKO AUKERARIK EZ IZATEA, TRABAK BESTERIK EZ DITUGU"

aurrera ez atzera gaude". Angulok irtenbidea bilatu nahian Arartekoarengana jo zuen. Garraio Zerbitzu Nagusiarekin harremanetan jartzeko bitartekari bat jarri zuen, baina alferrikakoa izan da saiakera.

Bitartean udalean eta kontzejuetan garraio publikoaren inguruko kexak pilatzen jarraitzen dute. Alkateak laburbildu duenez, "gobernuak ez du ezer egiten. Proposatu izan diogu lanen kostuaren zati bat udalak bere gain hartzea, alferrik. Ez dute irtenbiderik ematen. Baina araudia betetzen ez den beste herri batzuetan autobusa gelditzen da".

Eskaerapeko zerbitzua

Uhartek eta Angulok azaldu dutenez, Nafarroako Gobernuak eskaerapeko autobus zerbitzuan sartu zituen bi herriak. Bi kontzejuburuek salatu dutenez, "zerbitzua eskasa da eta ordutegi gutxi ditu". Izan ere, bezperan deituta, astelehen eta asteazkenetan arakildarrak Irurtzunera eramaten ditu, han Iruñera doan 09:27ko autobusa har dezaten. Eta Irurtzundik Arakilera bidaiariak eramaten ditu astelehen 13:41ean eta asteazkenetan 19:44ean. Larunbatean Irurtzunera 09:23rako eramaten ditu eskaerapeko zerbitzuak, eta 15:30ean bueltatzeko aukera dute. "Zerbitzua eskasa izateaz aparte, ez dute potentziatu", gaztigatu du Angulok. Gaineratu duenez, "Irurtzunen gelditzen diren autobus guztietarako zerbitzua izan beharko luke eskaerapekoak".

Olaberria zehaztu duenez, "Arakilen inork ez du eskaerapeko autobus zerbitzua erabiltzen. Gaizki kudeatu zuen gobernuak. Kanpotik, jendearen beharrak kontuan hartu gabe jarri zuten; ez da arakildarren



Satrustegiko markesinak hautsak jateko eta kartelak jartzeko besterik ez du balio gaur egun. ARTXIBOA

Protestak pilatzen

Nafarroako Gobernuak martxan jarritako NBus zerbitzuak erabiltzaileen protestak pilatzen jarraitzen du. Ikasturtea hastearekin ugari izan dira. Ordu jakin batzuetan autobusak bete egiten dira eta Irurtzun edo Altsasuko geltokietara iristean ezin izaten da inor gehiago igo. Bestetik, autobusera igotzeko lehentasuna dute Internet bidez txartela erosi dutenak. Sarean txartela erosi dutenak sartu ondoren tokirik balego, txartela autobusean bertan erosi behar dutenak sartzen dira. Baina ez beti, sakandar bat baino gehiago autobusa ezin hartu gelditu izan baita. Tartean adinekoak, Interneten txartela erosten jakin ez eta autobusean tokirik ez dagoelako. Medikura edo ikastera joan behar dutenendako eragozpen handia da hori.

La Burundesak garagartzaroaren 22an bi linea kendu zituen. Batetik, Olatzagutiatik Iruñera astegunetan 06:30ean abiatzen zena eta herriz herri pasatzen zena. Eta, bestetik, Iruñea eta Olatzagutia astegunetan lotzen zuena eta hiriburutik 11:45ean abiatzen dena, herri koxkorrenetatik pasatuz. Azken zerbitzu hori kenduta, 13:00etako autobusa hartu nahi duten bidaiari gehiago izatea dakar eta, ondorioz, Iruñean gelditzeko arriskua.

Foru administrazioak autobus zerbitzuaren emakida egitean Irurtzunen La Burundesa enpresak besterik ezin du bidaiariak hartu edo utzi. Nahiz eta herri erditik beste enpresa batzuetako ibilgailuak pasatzen diren. Enpresak gobernuaren jarraibideak betetzen ditu, eta ezin du aldagetak egin. Kexuak jaso eta haien berri administrazioa ematen dio eta aldagetak prest da, baina gobernuaren oniritzia behar dute horretarako. Eta behin kontzesioa emanda, aldagetak egiteko aukera gutxi uzten du legeak. 2023ko maiatzeko kontzesioaren aurretik La Burundesak zerbitzuak indartzeko autobus bat izaten zuen prest.



beharretara egokitzen". Alkatea Berta Miranda Ordobas Nafarroako Gobernuko Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko zuzendari nagusiarekin behin baino gehiagotan bildu da garraio zerbitzuaz hizketatzeko. "Esan nion eskaerapeko zerbitzuak ez zuela funtzionatuko, baina ez zidan sinistu nahi izan. Eskatu nion zerbitzu hori bertan behe- ra uzteko, baina esan zuenez, hori eginez gero penalizazioa luke gobernuak. Horregatik mantentzen dute".

Gaur egun aipatutako bost herrietan gelditzen diren autobus

"ARAUDIA BETETZEKO ZER EGIN BEHAR DUGUN EZ DIGUTE ESATEN, EZ AURRERA EZ ATZERA GAUDE"

"ARAKILEN INORK EZ DU ESKAERAPEKO AUTOBUS ZERBITZUA ERABILTZEN. GAIZKI KUDEATU ZUEN GOBERNUAK"

bakarrak eskola garraiokoak dira. "Herri barruraino sartzen da autobusa. Gero ateratzeko maniobra handia egin behar izaten du gidariak", azaldu du Angulok.

Proposamena

Arakilen garraio publikoak duen egoerarekin nahiko "nazkatuta" dago alkatea. "Oso gaizki dimentsionatu zuten beharra eta txapuz bat egin zuten. Kontzesioa azkar eta gaizki eman zuten eta ez ditu ibarraren beharrak asetzen". Arabako Lautadarekin dagoen konexio falta gogoratu du. Edo Iruñeritik eta Arabatik Sakanara lanera etortzen direnak garraio publikoa ezin dutela erabili. "Ikasleak Iruñera ikastera joatea arazo bat bihurtu da. Taxiak erabiltzen ari dira. Hezkuntza Departamentuaren eta Garraio Zuzendaritza Nagusiaren arteko koordinazio bat egon beharko luke".

Hori guztia kontuan izanik, Olaberriak Mirandari bilera eskatu dio atzera ere. Arakilen garraio publikoko beharrei erantzunen dion proposamen bat landu du udalak, eta alkateak hori aurkeztuko dio oraingoan.



Idolia eta Juanjo, atzean, ezker-eskuin.

Biziberri sarietan aitortza Uharteko birgaitze lanei

Itxesi auzoko ingurutzaille termikoaren eta irisgarritasunaren hobekuntza lanak finalista

UHARTE ARAKIL

Itxesi auzoko zazpi atarietan egindako ingurutzaille termikoaren eta irisgarritasunaren hobekuntza lanak Nafarroako Gobernuaren 4. Biziberri Sarian finalista izan dira. Idolia Tapia eta Juanjo Gorrotxategi auzokideek GUAIXERI martxoan azaldu ziotenez, "etxebizitzek 45 bat urte dituzte eta birgaitze premia zuten". Teilatua erabat berritu zuten eta fatxadetan isolatzailea jarri zuten. Auzo osoa zaharberritzea asmoa zenez, udalak esku-hartze orokorreko proiektua izendatu zuen. Horrek auzokideei Europako eta Nafarroako dirulaguntzak eskatzeko aukera eman die. Auzokideek martxoan jakinarazi zuten, lanen %54 horrela ordainduko dute. Bilera asko egin behar izan dituzte auzokideek birgaitzea egin ahal izateko, baina bidean udala eta Sakanako Mankomunitatearen egoitzan dagoen etxeen zaharberritze bulegoko teknikoak lagun izan dituzte.

Lanak egin ondoren, Tapiak adierazi duenez, "pozik gaude egindako lanarekin. Askok nabari da. Isolamendua jarri zutenean berehala nabaritu genuen etxea ez zela hain azkar hozten. Konfortean eta itxura auzoarendako onurak izan dira".

Lau hamarkadaren ondoren, medikuari agur

Uharte Arakilgo kontsultategian lan egin duen sendagilea atzo jubilatzen

UHARTE ARAKIL

Azkeneko lan eguna atzo izan zuen Antonio Fernandino Aragonen. Hiriberri Arakil, Ihabar, Irañeta, Uharte Arakil eta Arruazuko bizilagunen medikua izan dena 44 urteko jardunaren ondoren, 70 urterekin, jubilatzen da. Sendagileak udalek kontratatzen zituzten garaian hasi zen lanean Fernandino. Irañeta, Uharte eta Arruazuko udalek egindako deialdiari 30 medikuk erantzun zioten eta udalek Fernandino kontratatzea erabaki zuten 1980ko maiatzaren 10ean.

Ekitaldi publikoen zale ez dela jakitun, udal eta kontzejuek "egindako lana eskertzeko omenaldi xume bat" egin nahi izan zioten. Alde batetik, bost herrietatik liburuxka bat ibili da. Hartan herritarrek bere eskerrak, anekdotak edo hitz ederrak idazteko aukera izan dute. Horrekin batera, "egindako lanak hazia bota duela senti dezan", haziak eta landareak jaso dira, kontsultategiaren atzeko aldean dagoen lorategian landatzeko. Hango iturritxoan bera gogoratuz plakatxo bat jarri zuten.



URRIAK 28-31

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azalak
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Urriak 28** Joanes Bakaikoa pilotaria
- Urriak 29** Anabel Arraiza, Goenkalek 30 urte
- Urriak 30** Bertso saioa (Bertsoa.eus) eta 'Makarriketak' podcasta
- Urriak 31** Bigantxak Altsasuko festetan, Gazte topagune sozialista eta asteburuko agenda





Irurtzongo kultur etxean parte hartze aurrekontuei buruzko erakusketa ikusten. UTZITAKOA

"Parte hartzeak ez du asko kotizatzen gaur egun"

ALFREDO PRIETO PARIENTE PARTE HARTZE AURREKONTUKO TALDEKO KIDEA

Orain arte parte hartze aurrekontuak landu dituen taldeak pertsona eta ideia berriak sartzea ekarriko zuen errelebo baten beharra ikusita, bilerara deitu zuen larunbatean

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Irurtzundarrak eta herriko kolektiboak *Parte hartze aurrekontuak: ziklo berri bat?* deialdirako gonbidapena zuten. Bi hamarkadako bidea egin du parte hartze aurrekontuen lantaldeak, eta hark deitu zuen bilera, berritze-ko beharra ikusi dutelako.

Zer dira parte hartze aurrekontuak?

Lan tresna bat. Alde batetik, herriarrek dituzten beharrak detektatzeko, handiak, txikiak, fisikoak edo bestelakoak. Behar horiek normalean ez dira bulego

batetik detektatzen. Bestetik, parte hartzea sustatzeko tresna oso indartsua da. Ez hainbeste diru banaketa, baizik eta tresna baten moduan. Gainera, ondo egiten baldin bada, eta aukera zabala baldin bada, denondako, herriaren parte hartze sentimendua sortzen du.

Zer dinamika erabili duzue parte hartze aurrekontuekin?

Beste leku batzuetan nola egiten zen aztertzen urte batzuk eman genituen. Hasi ginen formula "erraz" batekin, baina gure errea-

litatera ondo egokitzen zena. Lehenik, gure errealitatea aztertze-ko antolatuta zeuden taldeen artean inkesta bat banatzen genuen. Haien ekarpenak jaso ondoren, herriarrek tailer bat egiten genuen, eta han ekarpen gehiago jasotzen genituen. Ekarpenak udalarekin aztertzen ziren, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak ziren edo ez jakiteko. Ondoren beteko ez ziren itxaropen handiegirik ez sortze-ko modua zen hori. Galbahea pasatako aukeren berri antola-

tutako taldeei ematen zitzairen. Eta ondoren, normalean, lau aukeratzen ziren. Haien inguruko txosten txiki bat egiten zen, ekonomikoki egingarriak ziren eta zein epetan egin zitezkeen aztertzen zen. Azkenik, bozketa zegoen. Hasieran, inkestaren bidez egiten zen, herriko denda batzuetan postontzi bat jarri eta botoak han sartzen ziren. Azken urteetan, plazan jartzen ginen, mahai batekin eta zerrenda batekin. Simplea, baina eraginkorra.

Noiztik parte hartze aurrekontuekin?

Formatu horretara heltzeko, aurretik beste lan bat egin zen. Nahiz herriarren ekimen bat izan, bai edo bai udalak parte hartu behar du. Udalak duen dirua banatzen dugu. Udalak bakarrik du dirua gastatzeko gaitasuna. Baina garai hartan legez kanporatzeak tarteko giro politikoa oso zaila zen, beraz, taldea parte hartzean zentratu zen. Zerbait urtez herrian parte hartzeko zer aukera eta egitura zeuden eta momentu hartan jendeak nola parte hartzen zuen aztertzen aritu ginen. Hortik abiatuta zer bulkatu genezakeen jakiteko. Zorte izugarria izan genuen: Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Soziologia Sailak gure proiektua gradu ondoko praktikak egiteko aukeratu zuen. Ondorioz, zenbait urtez Irurtzunen ikasleak eta irakasleak izan ziren praktikak egiten. Parte hartze diagnostia eta parte hartze-ari buruzko diagnostia egin genituen. Erreminta batzuk sortzen joan ginen, ondoren parte hartze aurrekontuan indarrean jartzeko.

2011n udalaren konpromisoa lortu genuen parte hartze aurrekontuetan aukeratzen zen proiektu

tura 20.000 euro bideratzeko. Eta, ordutik, horrela egin dugu orain arte. Konturatu ginen jendeak eskatzen zituen proiektu asko ezin zirela 20.000 euroekin egin, 35.000 eurora handitu zen. Kasuren bat aukeratutako egitasmoa bi urteko diruarekin egin da.

Bestetik, ulertu beharra dago tresna ez dela bakarrik boto gehien jaso duen proiektua egiteko bitarteko bat. Nahiz eta botazioan lehenengoa ez izan, proiektu asko egin dira. Proposamen txiki asko udalak zuzenean egin ditu. Beraz, ez da urte bakoitzeko proiektu bakar bat egin. Askoz ere aberatsagoa da. Horregatik, guretako parte hartze aurrekontuak tresna bat dira. Behar materialez aparte, gizarte premiak, aurrekontu bakar batekin asetzen ez direnak. Hala-koak jaso eta zuzenean udalari pasatzen genizkion.

Zeinek dinamizatu ditu?

Herriarrok. Munduan barna zeuden beste esperientzia batzuk ezagutzen hasi ginen 2001ean, Porto Alegre eta halakoak. Azterketa hasi genuen. Irurtzunen aberastasun izugarria dago, jendeak, aspalditik, egiturak ditu. "Zergatik ez dugu beste pauso bat gehiago ematen eta zergatik ez gara hasten denon dirua dena denon artean banatzen?" Egiten zena aztertzen hasi ginen. Lauz-pabost elkartu ginen eta 2004an aurkezpen bat egin genuen. EHUko Asier Blas eta Las Cañas de San Juandik (Sevilla) beste teknikari batzuk etorri ziren. Haiek urte batzuk zeramatzen parte hartze aurrekontuak egiten. Estatuko orduko erreferentea zen. Hitzaldira jende pila joan zen eta oso animatuta atera zen. Herriarrez osatutako talde sustatzailerak sortu zen. Gizarte Zerbitzuetako teknikariak hasieratik egon dira. Zorte handiz, EHUkoak animatu ziren, eta gurekin hiru urte egon ziren, laguntzen eta gurekin bidea egiten.

Talde handia izan zarete?

Momentu jakin batzuetan agian 20 edo 25 pertsona. Askotan teknikariak hitzak jartzera etortzen ziren, baina ordurako guk bage-nekien zer zen hura. Izan ere, zer izen zuen jakin gabe ere, Irurtzunen aspaldi hori egiten ari zen jende pila baitzegoen. Ordurako hemen esperientzia eta jakituria handia zegoen. Ez zen berria, egiteko modua aldatzen zen, ezaguna zen, bazekiten zer edo nola egin behar zen. Gu



"ONDO EGITEN BALDIN BADA, DENONDAKO, HERRIREN PARTE IZATE SENTIMENDUA SORTZEN DU"

ALFREDO PRIETO

Egindakoak



2011 Erreka eta Bi Haizpetako inguruak aisiarako berreskuratu.



2012 Espaloiak errespetatu. Seinaleak errespetatu.



2013 Musika eskolan hobekuntza lanak egitea.



2013 Igerilekuetako instalazioak hobetzea.



2013 Igerilekuetako instalazioak hobetu.



2014 Barazkigunean jartzeko karpa erostea.



2015 Plazaolako zubia eta ingurua txukuntzea.



2015 Igerilekuetara joateko bidea konpontzea.



2016 Anbulantzietarako sarbidea egokitzea.



2016 Jubilatu elkarteko leihoak aldatzea.



2016 Mendiko ibilbideak berritzea.



2016 Plazako zorua eta harmailak konpontzea.



2017 Igerilekuetako berdeguneak hobetzea.



2018 Udaletxe ondoko jolas parkea handitzea.



2019 Igerilekuetako aldagelak konpontzea.



2020 Atakondoa patioan jolas-parkea jartzea.



2022 Larrazpi gazte elkartearen hobekuntzak egitea.



2023 Udaletxe ondoko jolas parkea estaltzea.

pila aberastu ginen, baina etorri ziren ikasle eta irakasleek ikasteko aukera izugarria izan zuten. Oso interesgarria izan zen. Laborategi txiki bat sortu zen.

Zein izan dira lorpenak?

Batzuek ikusten oso errazak dira. Kaletik zoaz eta parte hartze aurrekontuekin egin ziren proiektuak ikusten dituzu. Nabaria da. Larunbatean egindakoen erakusketa txiki bat ikusgai izan zen, proiektu bakoitzaren aurreko egoera eta ondorengoa erausteko. Jende batzuk esan zutenez, ahaztuta zutela aurretik nolakoa zen halako proiektua. Gauzatu diren egitasmoak herritarren premietatik atera dira. Hori ikusten errazena da. Bestalde, egindako lana eta bidea daude. Udalaren egituraren lan egiteko modua txertatuta dago. Taldeetan, antolatuta ez dagoen jendearengan, Sakanako beste zerbitzu batzuetan txertatzen joan da. Elkarrekin bizi izan dugulako. Nik horri ematen diot garrantzia, ez hainbeste proiektuei.

Gabeziarik?

Jende berria aspaldi ez da sartu. Urte asko gauza bera egiten daramagu, formula errepikatzen, eta galdu egiten da. Parte hartze handi eta aberatsa ez dator bat beti gauza bera egitearekin. Zerbait galtzen ari gara.

Balorazioa?

Positiboa, inolako zalantzarik gabe. Alde batetik, pertsonalki norberak eta bere taldeak jasotzen duena. Herrian gelditzen dena ikusten da.

Larunbateko bilera, zergatik?

Joan zen urtean esan genuen: "hemen beste ikuspegi bat duen norbait sartu behar da". Gu laguntzeko egonen gara, baina ikuspegia zabaldu behar da. Taldea zabaltzeko formula bilatzeko, eta jarraipena emateko aukera dagoen ikusteko. Betiere, herritarren proiektu gisa segitzeko, ez udalak egiten duen zerbait. Taldean sentitzen dugu erreleboa egon behar duela. Udalari jakinarazi genion 2024an guk ez genuela parte hartze aurrekonturik antolatuko. Printzipioz, udalarena bermatuta dago.

Jendeak erantzun zuen?

Larunbatean parte hartu duen jendeari bere denbora, energia eta ilusioa emateagatik, partekatu dugun bideagatik, eskerrak eman genizkien. Gazteak hurbildu ziren. Parte hartu eta gero utzi zuen jendea izan zen. Bide osoa egin duena. Politika izan

zen. Bestalde, bakarren bat animatuko zen galdetu genuen. Bileran ez zen konpromisorik hartu. Bakarren batek esan zuen animatuta zegoela. Sentipen polita utzi zigun bilerak. Itxaropen pixka bat. Baina ezer ez dago ziurtatuta. Jendeari denbora gehiago eman beharko diogu, eta gehiago zabaldu beharko dugu. Parte hartzeak ez du asko kotizatzen gaur egun. Zaila da, jendea bere gauzetan oso sartuta dago. Ez da erraza halako zerbaitean bat-batean sartzea. Denbora behar da. Balorazioa egingen dugu, nondik segi erabakiko dugu, jarraitzea interesgarria litzatekeela iruditzen zaigulako.

Hurrengo pausoa?

Bi lan ildo daude. Egindako lanari jarraipena ematea. Bestetik, jendea animatuz gero, pertsona batzuek interesa genuke duela 15 bat urte egindako parte hartzeari buruzko diagnosis berriro egingen. Ongi legoke jakitea une honetan zer dugun. Horretarako jendea behar da.

EHUkoen atea joko zenukete ere?

Lehenik, talde motorra egon beharko luke, interes handia dute sei edo zortzi pertsona. Motor indartsua baldin badago, teknikariak eta dirua bilatzea ez da hain zaila. Hori da gure esperientzia. Bestea da zailena.

Sakandarrei zer esanen zeniekete?

Guretako interesgarriena zen behetik sortzea eta behetik kudeatzea. Baina bakoitzak ikusi behar du bere herrian eta bere udalarekin edo bere inguruko gizartean egin ahal den eta zein den onena. Errazena udalak indarrean jartzea da, hark esanen luke nola, noiz eta zenbat. Guretako aberatsagoa da oinarritik sortzen dena. Askoz lan karga handiagoa da, baina guretako aberatsagoa da.



xapatero
taberna

**Etxeko krocketak
eta bokatak**

948 460 162 · Etxarri Aranatz

Hezkuntza publikoan greba izanen da asteartean

Departamentuaren eta sindikatuen arteko bileretan ez dira jarrerak hurbildu

SAKANA

Ikasturteko bigarren greba deialdia dute Hezkuntza publikoko langileek lastailaren 29rako, astearterako. Irailaren 26ko deialdian bezala, oraingoan ere STEI-LAS, ANPE, AFAPNA, LAB, CCOO, ELA eta UGT sindikatuek deitu dute greba. Carlos Gimeno Gurpegi kontseilariarekin bitan batzartu dira baina hark egin-dako eskaintzak "eskasak" direla iritzita, greba deialdia mantendu dute.

Lau eskaera dituzte. Batetik, "ikasle guztien arreta hobetzeko ratioen jaitsiera lineal progresiboa". Jaitsierak etapa guztietako lehen mailarako nahi dituzte heldu den ikasturterako. Bestetik, irakasleen eskubideetan atzera egitea dakarren proposamenak baztertzea. Gainera, lan gainkarga murrizteko neurri eraginkorrak nahi dituzte. Azkenik, eros ahalmena berreskuratu nahi dute.

KS eta LAS Sunsundeguiaren egoerarekin kezkatuta

Adierazi dutenez, "ehunka langile familia arriskuan" daude. Enpresariak "errudun" jo dituzte

ALTSASU

Kontseilu Sozialistak (KS) eta Laneko Autodefentsa Sareak (LAS) kezka begiratzeko diote Sunsundeguiari: "egoerak aukera gutxi eskaintzen ditu, eta enpresa ixteko elementuak sortzen ari dira. Horrek ondorio latzak ekarriko lituzke enpresako langileendako eta ibarraren etorkizunerako". Ondorioa "Sakanako langileen bizi baldintza okertzea" litzateke, "zailtasun gehiago ekarri ibarrean lana aurkitu eta bizitza garatu ahal izateko".

KSk eta LASek egoera "zail" horretan "inoiz baino garrantzitsuagoa" jo dute "antolatzea eta langile interesen alde borrokatzea. Beharrezkoa dugu indibidualismoarekin haustea eta langile klase antolatuen gaitasunetan konfiantza izatea". Bi erakundeetako kideek Sunsundeguiako eta enpresa hornitzaileetako langileei elkartasuna adierazi diete.

Lan arloko akordioa Josefina Arregi klinikan

Enpresa batzordean gehiengoa duen LABek jakinarazi duenez, akordioa 2026ko bukaera artekoa da eta "lan hobekuntza oso onak jasotzen ditu, esaterako, soldata igoerak Nafarroako KPlaren arabera edo 58 ordu arteko lanaldi murrizketak"

ALTSASU

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko zuzendaritzak eta enpresa batzordeak (bostetik hiru LABeko kideak) akordioa lortu dute. Sindikatutik azaldu dutenez, "lan hobekuntza nabarmenak" jaso ditu hitzarmenak. Akordioaren jarraipena egiteko eta hurrengo hitzarmenari buruzko negoziazioak hasteko aldeak hileroko bilerak egingen dituzte. LABeko kideek lortutako akordioaz "oso balorazio positiboa" egin dute, "2008tik Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) azpiko soldata igoerak egon dira. Orain urte bakoitzeko soldata igoera, Nafarroa Garaiko KPIarekin lotuta egonen da. Igoera horrek oinarritzko soldadari, hitzarmenaren plusari eta antzinasun-osagarriari eragiten die". LABekoek gaineratu dutenez, "hainbat arlotan aurrera-pausoak lortu dira".

Batetik, hitzarmena indarrean den bitartean lanaldia 58 murriztuko dute bederatzi kategoriatako langileek. Bestetik, jai egunetako plusaren inguruko akordioa izan da. "Aurreko hitzarmenak zioen oporretako nomina kalkulatzeko ez direla aintzat hartuko batez besteko plusak. Hemendik aurrera plus hori hobetu egingen da, aurreko



Klinikako langileek lan hitzarmen eske egindako bilkura. ARTXIBOA

hilabeteetako plusak kontuan hartuko baitira", azaldu dute LABetik. Aldi berean, klinikako lan hitzarmeneko hainbat testu eguneratu eta aldatu dituzte, "bestelako interpretazio posiblerik izan ez dezaten. Testuak lizentziei (lanegunetan hartuko dira), aparteko ordu, ordu osagarri eta lan-egutegiari buruzkoak dira", zehaztu dute. Aldeek jasotakoaren arabera, langileak mediku espezialistaren kontsultara joateko beste egun bat izanen dute lan hitzarmenean.

Klinika psikogeriatrikoaren lan itun berriaren arabera, "laneko benetako denboratza hartzen dira erizaintzako txandetan informazioa hartu eta emateko gainjartzen diren 15 minutuak". Horrekin batera, aipatutako kolektibo horri urtero egun libre bat aitortu zaio, analisiak herriko osasun zentrorara eramateagatik. Azkenik, Eguneko Zentroko erizainen kasuan, atsedenaldia benetako lan-denboratza hartuko da. Horretarako, hiru hilabetezko proba egingen dute.

DUELA 25 URTE...



Satrustegiren liburua

Jose Mari Satrustegi Zubeldiaren *Sakanerri barrena* liburua aurkeztu zen. Bierrik Elkartek (egungo GUAIXE FUNDazioa) argitaratutako aurreneko liburuan arbazuarrak Guaixe hilabete-karian idatzitako artikulak jaso ziren. Aurretik egindako ikerketen ondorioak edo sintesia jasotzen ziren idatzietan. Sakanako herrietako historia, kondaira, herri jakintza eta ohitura zaharren bilduma bat zen. Horiek guztiak hiru ataletan banatuta zeuden.

Israel Gazan egiten ari den genozidioa gelditzeko eskaerak

Gernika-Palestina ekimenak astelehenean egindako eskaera Altsasuko osasun langileek berretsi zuten atzo

SAKANA

Irurtzun, Irañeta, Etxarri Arantz, Bakaiku, Altsasu eta Zor-dian *Genozidioa stop* lelopean kontzentrazioak egin ziren. Gazan Israel eragiten ari den giza hondamendia salatu eta mende-

baldeko estatuen erantzunkizuna nabarmendu zuten.

Altsasun Osasun langileek Gaza iparraldeko egoera "oso dramatikoaren" inguruan gaztigatu zuten. "Hiru ospitaleak setiatuta daude. Ez dago pazienteak eba-

kuatzeko aukerarik, ez dagoelako nora eraman. Horren aurrean, osasun profesionalek bertan geratzea erabaki dute. Nahiz eta horrek heriotza ekarriko dien". Horregatik, "berehalako su etena eta Palestinan giza laguntza sartzeari" exijitu zituzten. Horrekin batera, osasun azpiegiturak eta langileak errespetatzea exijitu zuten. Israelekin "maila guztietako harremanak hausteko" eta Teva markako botikak ez erostera deitu zuten. Azkenik, Israeli zigorrak jartzeko eskatu zuten.

Irañetako ur biltegiko lanak despeditzear

Ura etxeetara garbiago iristeko arazteko filtroak jartzeko lanak egin dituzte ur biltegi berrian. Azpiegituraren inguruan dauden larreak sasiz garbitu eta itxitura berritu du udalak

Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA
Barga azpian, Zabal dermioan, du Irañetako ur biltegia. Udala 2009tik dirulaguntza eskatzen ibili ondoren, ur biltegi berria 2020. urtean egin zuen, zaharra baino 150 metro gorago, herri-gunetik bi kilometrora. Bi putzutan banatuta 240 metro kubiko edukiera du. Baina ura etxeetara garbiago iristeko iragazpen sistema jartzea falta zen. Horregatik, ur biltegiko hoditeriaren giltzen gelan lanean izan dira Hidro Control enpresako langileak azken egunetan. Lanek 28.000 euroko aurrekontua izan dute, eta horiek finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan du udalak.

Ez da inguru hartan Irañetako Udalak egin duen lan bakarra. Iñaki Arangoa Zia alkateak jakinarazi duenez, Zabalen eta Basabeko etxearen inguruan azindak bazkarako behar bezalako larreak izateko, ingurua sasiz garbitu du. Langintza ho-



Irañetako ur biltegia.

rretarako Europako funtsetako 37.560 euroko dirulaguntza izan du udalak. Horrekin lan guztiak ordaindu ditu. Gainera, itxitura batzuk ere berritu ditu. Alkateak jakinarazi duenez, lanak 13.686 euroko aurrekontua izan du,

udalak 7.236 euro ordaindu zituen eta gainontzeko 6.450 euroak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarenak dira.

Arangoak aurreratu duenez, "udalaren asmoa litzateke udal-terre zaharreko lanak emateko deialdia azaroan egitea". Izan ere, "lanak aurten hasi eta heldu den urtean despedituko dira". Udal eraikin horrek mediku kontsultategia hartu zuen, baina orain irintarrak Uharte Arakilera joatera behartuta daude. Udalak udal-terre zaharra "trasteak" gordetzeko erabiltzen du gaur egun. Eraikin hori erabilera soziokulturala emateko eraberritu nahi du Irañetako Udalak. Arangoak jakinarazi duenez, hura zaharberritzeko udalak esku artean duen proiektuak 176.108,46 euroko aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Planean jasota dagoenez, lanak finantzatzeko foru administrazioaren dirulaguntza jaso-ko du Irañetako Udalak.



Feria eguna Altsasun

Asteburua ferietako ospakizunei emanda bizi izan zuten altsasuarrek, eta hurbildu ziren bisitariek. Ostirala motorra berotzeko eta larunbata parrandarako eguna izan zen. Altsasuko Peñak eta Beti laten elkartekoak izan ziren, besteak beste, kalea

girotu zutenak. Dantzaldiarekin Foru plaza animatuta egon zen. Domeka, berriz, feria eguna izan zen. Behiak, ardiak eta oiloak alde batetik, eta, bestetik, zaldien morfologia lehiaketak ikusle asko erakarri zituzten. Gainera, herria azoka handi bat bihurtu zen.



ARTXIBOA

Lakuntzako estalpea, gertuago

Lakuntzako Udalak plazan estalpea egiteko lanak Construcciones Osés enpresari eman dizkio. Enpresak egitekoak lau hilabetetan despeditu beharko ditu. Lanak 237.825,50 euroko (BEZ barne) aurrekontua du. Obra finantzatzeko udalak Cederna-Garalurren bidez 60.000 euro jaso zituen, eta Nafarroako Gobernutik 45.000 euro jaso ditu. Guztira 105.000 euro.

ESPERIENTZIAK

Esanezin - Kontzertua



Azaroak 9
Larunbata 19:30

Altsasu
Iortia kulturegunea

Sarrerak:
• Aurretik, **12€** (BERRIAlagunek, **10€**)
Egunean bertan, **14€** (BERRIAlagunek, **12€** - txartela aurkeztuta)

Sarrerak salgai:
• BERRIAn: berria.eus/komunitatea/denda/ helbidean edo 943 30 43 45 telefonora deituz.
• Iortia kulturegunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Antolatzaileak:

berria **BADOK** **Mank**

Laguntzaileak:

Nafarroako Gobernua **Altsasun** **Altsasun**

"Politizaziorako espazioak izatea garrantzitsua da"

NAHIA BENGOTXEA GARISOAIN ETA HAIZEA ARTOLA LOPEZ GKS ETA IAKO KIDEAK
Gazte Topagune Sozialista antolatu dute Gazte Koordinadora Sozialistako eta Ikasle Abertzaleak-ek Altsasun, lastailaren 31tik azaroaren 3ra

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Hiru urteren ondoren Altsasuk, atzera ere, Gazte Topagune Sozialista hartuko du. Antolaketa buru-belarri ari dira.

Gazte. Haiendako bakarrik?

Nahia. GKSn gazteei bideratutako jardunean aritzen gara gure egunerokoan. Garrantzitsua ikusten dugu ikasleak eta gazteak politizaziorako espazioak izatea.

Topagune. Zertarako?

Haizea. Gaurkotasuneko hainbat gairen inguruan eztabaidatu eta hausnartzen da. Horretaz aparte, komunitatea indartzeko, elkar ezagutzeko eta ideiak elkarbanatzeko aukera ematen du topaguneak. Azken finean, baliabide bat da indarrak hartzeko.

Sozialista. Zeini zuzenduta?

N. Gaur egun krisi kapitalista batean murgilduta gaude, gerra eguneroko ogia da. Beharrezkoa jotzen dugu horri guztiari aurre egiteko alternatiba sozialista bat indartzea. Egongo diren eztabaida eta hausnarketen bidez garrantzitsu ikusten dugu horri aurre egitea edo, behintzat, aurrerapauso batzuk ematea.

Zeren inguruan hausnartuko duzue?

H. Gaurkotasunaz eta heldu diren urteetan eman beharreko pausoez hitz egin eta horiek landuko ditugu. Hainbat hitzaldi eta mahai inguru egongo dira: ekonomia krisia, euskal literatura, gaurkotasun politikoa, emakumearen auzia, gazte eta ikasle mugimenduen historia Euskal Herrian eta mugimendu sozialistaren erronkak.

N. Gaietan adituak diren hainbat hizlari etorriko dira. Guretako erreferente politikoak dira eta asko dugu ikasteko haiengandik. Hitzaldi eta mahai inguruen akaberen galderak egiteko aukera izango da.

Dena trebakuntza izanen da?

H. Ez, aisialdirako aukera eta eduki politikoa lantzeko hainbat gauza egongo dira (egitaraua 17. orrian).



Haizea eta Nahia topagunea iragartzen duen kartelari eusten.

"GAURKOTASUNAZ ETA HELDU DIREN URTEETAN EMAN BEHARREKO PAUSOEZ HITZ EGINGO DA"

N. Bi espaziotan banatuko da. Gune nagusia Dantzalekuko futbol zelai zaharrean egongo da. Eta Sutegi deituriko gunea Foru plazan egongo da. Karpa horretara edonork eartzeko aukera izango du eta ez da sarerarik behar. Gune nagusira sartu ahal izateko sarrera beharko da.

H. Eguneko bonuak daude, ostegun eta ostiralerako 10 eurotan, larunbatean 20 eurotan, eta larunbateko kontzertuak 15 euro.

Zertarako balio dute topaguneak?

N. Halako espazioak garrantzitsuak dira gazte langileok politizatzeke, gure artean eztabaidatzeko. Gure egunerokotasunean gauzak gertatzen dira eta horren inguruan jakitun ez bagara pertsona pasiboak bilakatzen gara. Gure ideiak defendatzen jakiteko ere.

Topagunea bigarren aldiz Altsasun egingo da.

N. 2021ekoa esperientzia ona izan genuen. Herrian ere harrera ona izan genuen, jendea pozik egon zen. Ikusi genuen herrian berriro egitea oso positiboa izan zitekeela. Gainera, Altsasu Euskal Herriaren erdigunean dago gutxi gorabehera, horrela jendea gerturatzea errazago da.

Aurkezpenak, zer moduz?

N. Oso ondo. Jendea gerturatu da, zalantzak argitu ditu. Motibatzeke balio izan dute. Jendeak badu aurreko topagunearen esperientzia, oroitzapen positiboa du. 2000 pertsona inguru espero dira. Euskal Herriatik, Galiziatik, Kataluniatik, Madrildik... Haiekin ere badugulako asko ikasteko, eta haiek ere gugandik asko ikasteko dutelako.

Zer arrasto uztea espero duzue?

N. Gazteen artean pixka bat kontzientzia gehiago, lan egiteko gogo hori. Benetan proiektu politikoan sinesteko gogo gehiago izatea, motibazioa, kontzientzia hori beharrezkoa delako.

Ondoren, zer?

H. Pilak karga, lanean segitzeko. **N.** Handitzen doan mugimendubat da. Topagunea eta gero gehiago izatea espero dugu.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Tauromakia kultur ondare iza-teari uzteko indarrean dagoen legea indargabetzeko Herri Eki-men Legegilea (HEL) abiarazi dute. Sustapen Batzordeak baimendutako pertsonak, fede emailak, ari dira han eta hemen sinadurak biltzen.

Zer da animalien ongizatea?

Kontzeptu horren arabera animaliak alferrik ez sufritzeko moduan tratatu behar dira; osasun egoera ona eta emozio ongizatea izan behar dute. Eta haien berezko natur instintuen arabera jokatu behar dute. Bost oinarri ditu: ura eta janaria eskuratzea, osasuntsu egoteke; ingurune egoki baterako sarbidea; minik, lesiorik edo gaixotasunik ez izatea: prebentzioa edo diagnostikoa eta tratamendu egokia; portaera normala adierazteko libre izatea eta, azkenik, beldur eta larritasun askatasuna: animaliak buruko sufrimendua saihesteko moduan daudela ziurtatzea. Bestalde, kontzeptuak animalien tratu etiko eta errespetuzkoaren alde egiten du, izan maskotak, lehen sektorean aritu, ikerketarako erabili, entrenamenduan edo pertsonen eta animalien arteko beste esku hartzetan. Hala ere, Estatuko egungo legeak horietako batzuk ahaztu ditu, esaterako, ehiza txakurrak. Jose Javier Napal Gorritz HELe-ko kide fede-emailaren arabera "gaizki deitutako 'animalien ongizatea' ez da existitzen, eta, beraz, ez da aplikatzen. Berez, izena ere aldatu zuten, nahi gabe justizia eginez, eta orain laguntza eta esperientzio animalien atala deitzen da, ez animalia ongizatearena".

Zer eragiten dizue zezen festak?

Gaitzespena, lotsa, tristura eta ezintasuna.

Zergatik?

Entzierroetan zezenak bulkatzen dituzte jendez betetako eta zaratatsuak diren kaleetan laster egitera. Naturaren kontrakoa den inguru horretatik ihes egiten saiatzerakoan estresa, beldurra eta balizko lesioak eragiten ditu. Animaliek ezin dituzte berez naturalak diren jokabideak adierazi, eta larritasun handia jasaten dute.

Bigantxak askatzeak edo sokamuturrek ez dute animalien ongizatearen printzipioak erabat betetzen. Izan ere, egoerak estresa sortzen die eta parte hartzen duten animaliek litekeena da

min hartzea. Berez hor egotea aukeratu ez duen izaki bat da. Hiru definizio. Tratu txarrak: pertsona edo animalia bati kalte fisiko edo morala eragitea. Kru-delkeria: sufrimendua eta min bizia eragiten dituen ekintza. Sufrimendua: mina edo pairamen fisiko edo psikikoa. Horiek kontutan izanda, eta AVATMAren (Tauromakiaren eta Animalien Tratu Txarren Albaitari Abolizionisten Elkarte) albaitaritzak ikerketen arabera, ziurta dezakegu bigantxek eta behiek ikuskizun horietan tratatu txarrak, krudelkeria eta sufrimendua jasaten dituztela.

Zezenketetan zezenek tortura eta heriotza prozesua jasaten dute. Horrek argi eta garbi urratzen ditu animalia ongizatearen printzipioak, min, lesio eta beldurretik aske izatearen barne. Animalien sufrimendu fisikoa eta mentala (zientifikoki egiaztatuta) nahita egiten da, eta ikuskizun sadiko baten zati da. Gainera, adin txikikoen eskura dago, guztion etorkizuna kaltetuz.

Kasu horietan guztietan animaliek estresa, beldurra, balizko lesioak eta, zezenketen kasuan, heriotza bortitza jasaten dituzte. Beraz, animalia ongizatearen printzipioetatik urruntzen ditu. Halako ekintzek animalien kontrako indarkeria eta tratatu txarrak normalizatzen dituzte, eta ez lirateke baimendu beharko. Are gutxiago gure zergekin.

Altsasuko festetan bigantxak izateko proposamena aurkeztu dute.

Altsasuar gisa, amorragarria eta lotsagarria da. HELe-ko kide Napali bezala, oso triste iruditzen zaigu jende hain gaztea animalien kontrako tratatu txarren alde egiteak. Gainera, irudimen gutxiko proposamena da, garai zaharrei edo inguru honetan hainbeste uko egiten den "España cañi" delakoari begiratzen dio. Ordezko zerbait egin zezaketen, haren ordezkari ginkana bat, edo, beti eskatzen dena, txikiendako zerbait. Bestalde, sistema dagoen bezala egonda, osasun publikoko anbulantzia bat erabili behar izatea, enpatia gutxi-koa da. Era berean, albaitaria

"LEGEDIAN ANIMALIEN ETA GIZAKIEN ONGIZATEAK LEHENTASUNA IZAN BEHARKO LUKETE"

"Sufrimendu fisikoa eta mentala nahita egiten da"

JAVI GALEANO FUENTES #EZDANIREKULTURA HELERAKO FEDE EMAILA BEREZIA
Tauromakia kultur ondare izendatu zuen Espainiako Gobernuak 2013an. Legea bertan behera uzteko Herri Ekimen Legegilea martxan da, sinadurak biltzen ari dira

eta ekintza horietara bideratu-tako abelburuen abeltzaina den bat (hala ulertu genuen, barka oker bagaude) ez da egokiena proposamena albaitaritzaren ikuspuntutik defendatzeko, interes gatazka argia da.

Sinadurak bilketa, zertarako?

Mariano Rajoyren gobernuaren legea indargabetzeko. Legeak eragozten du Espainiako Estatu-ko eskualde bakoitzak zezen festen inguruan ahotsa eta erabaki ahal izatea. Tauromakiaren Ondareari buruzko egungo legeak eragotzi egiten du, eta Madrildik ikuskizun sadikoak blindatuta uzten ditu. HELa aurrera aterata, legea indargabetzea eztabai-datuko da kongresuan.

Napalen arabera, "egungo legeak tratatu txarra eta tortura baimen-tzen ditu. Datu objektiboak ema-

ten dituzten albaitaritzak txostenak (AVATMA) hala diote. Gaur egungo legea oso zinikoa da, tortura eta tratatu txarrak ahalbidetzen ditu, baina ez da delitua. Ez du uzten zezenari edo behiari ostikoak ematea, baina gogoratu Lizarran duela urte pare bat gertatutakoa: gizonezko batek bigantxa lurrera bota eta gainean eseri zen. Edo Xavian itsasoan itota hil da zezen bat aurten. Ez zuen antolatzaileen kontrako inolako lege ondoriorik izan".

Zer dio gaur egungo legeak?

Tauromakia kultur ondare gisa arautzen duen legeak gizartearen gaitzespen zabala sorrarazten duten zezen ikuskizunak debekatze edo arautzeko erkidegoen eta udalen eskumenak zapaltzen ditu. Estatu-ko araudiak udalei eta erkidegoei galarazten die be-

rezko kultur ondare adierazpideak arautzea. Hala, eskualdeen eskumenak mugatzen dira eta tauromakia babesten da beste edozein kultur edo arte adierazpenaren gainetik. Egungo legea 10/1991 legearen kontra egiten du, azken hori zezen ikuskizunen eta haien arautegi garapenaren administrazio ahalmenen ingurukoa da, eta erkidegoei eskumen horiek ziurtatzen dizkie.

Zein irizpide izan beharko lituzke?

Legedian animalien eta gizakien ongizateak lehentasuna izan beharko lukete. Tradizio, arte adierazpide, ikuskizun, kultura edo erlijio bat bera ere ez luke aitzakia izan beharko edozein izaki biziduni kaltea eragiteko. Tratatu txarra ez litzateke normalizatu beharko eta, are gutxiago, baimendu.



Galeano, ezkerrean, Izaskun Forkada eta Roberto Castresanarekin Bilbon. UTZITAKOA

Gutxieneko sinadura kopuru bat behar da?

500.000, eta 350.000 jaso ditugu.

Interesa duenak non eta noiz arte sina dezake?

Informazio guztia noesmicultura.org webgunean dago (egunero erasotzen dute, eta egunero sareratzten dute). Sinaduren atalean sinatzeko gertuen dagoen tokia non dagoen ikus daiteke. Online sina daiteke, ziurtagiri digitalarekin, eta puntu finkoetan. Sareen bidez antolatzen gara sinadurak taldean biltzeko. Altsasun aza-

roaren 2an, larunbatean, jasoko ditugu.

Ekimenarekin bat egin nahi duenak zer egin beharko luke?

Aldekoak diren denda eta tabernak bat egitera animatzen ditugu, hala eroso sinatzeko espazio fisikoa izateko. Baita kausaren alde sinadura bilketan lagundu nahi duen edonor ere. Horretarako, aipatu webgunean sartu behar dute, "bat egin" atalean. Ekitaldi zehatzetan sinadurak biltzeko ere gurekin harremanetan jar litezke.

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eus



Eman bultzada,
indartu euskara

**Agerreko uzta
euskarari puzka**

Izan giltzarri!



Iker Manterola Matxain Sakanako Garapen Agentziako koordinatzailea

Iker Manterola naiz, Sakanako Garapen Agentziako koordinatzailea.
Sakanan bizi eta lan egitea posible izan dadin, gure ahotsa beharrezkoa dugu munduan, guretik eta gure hizkuntzan. Horregatik, garapen Agentziako lantalde guztiaren izenean, hori posible egiten duen Guaixe fundazioa babestera animatzen zaitugu.
Izan zaitetz giltzarri!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)

ESKELA



Luciano Lopez de Goikoetxea Eskisabel
2024ko urriaren 20an hil zen Olaztin, 78 urte zituela

Ahazten ez dena ez da sekula hilko.

Etxekoak

ESKELA



Juan Uncilla Lacunza
Non hago, zer larretan, Urepeleko artzaina
Mendi hegaletan gora, oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

Anai-arrebak eta ilobak
Arbizu



OROIGARRIA



Mikel Apaolaza Mendia
VI. urteurrena

Zue irribarreak ta alaitasunak
que artien segitzen dau

Zure lagunak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifikak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

• **Maren Lopez de Zubiria Iraola**, urriaren 18an Etxarri Arantzen.

HERIOTZAK

• **Luciano Lopez de Goikoetxea Eskisabel**, urriaren 20ean Olaztin.

• **Francisco Javier Araña Leiza**, urriaren 15ean Arbizun.

• **Juan Uncilla Lacunza**, urriaren 16an Arbizun.

• **Miguel Lakuntza Lanz**, urriaren 22an Lakuntzan.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA
Kamioi eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila. Sakanan. Curriculumak: tallercamion10@gmail.com / 948 507 019

LANA/NEGOZIOAK
LAN ESKAINTZA
Lizarragako Azi Iturri Txokoa San Klemente festetan alokatu nahi da: Enkantea azaroaren 10ean, igandea, eguerdiko 12:00etan elkartean izango da. Gutxienekoa 1000 euro izango dira eta diru gehien eskeintzen duenak irabaziko du. Festak azaroaren 22, 23 eta 24ean ospatzen dira. Animatu zaitze!

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitor lan poltsak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

IKASTAROA
Indar tailerra emakumeentzat: Azaroaren 5ean Ziordin eta azaroaren 29an Uharte Arakilen. Informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 610 812 888 telefonoan.

Pintura ikastaroa Olaztin: Udalak antolatutako ikastaroaren inguruko informazioa eta inskripzioa www.olazti.com web orrian edo udaletxean.

Lakuntzan ikasturteko ikastaro eskaintza heldu eta gazteentzat: Hainbat erakundek antolatzen dituzten ikastaro eta tailerretan izena emateko haiekin jarri behar da harremanetan, edonola ere eskaintza guztien berri www.lakuntza.eus web orrian ikusi daiteke.

Gimnasia terapeutikoa fibromialgia eta Neke Kronikoa dutenentzat: Osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoak egingo dira ikastaroak Altsasun, Etxarrin eta Irurtzunen. Informazio gehiago eta izen emateak Sakanako Mankomunitatean (948 464 866) edo AFINAN (948 135 333) telefonoetan. Emaillez kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

OHARRAK
Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du: Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalek jakinera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hemendik aurrera.

Arbizuko Utzubar Eko-gunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakinak@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa platafor-

marekin batera Elkartasun Aktiboa iniziatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpen ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrantean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMAN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabili da dirua eman.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toldoak eta ibilgai-

lu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Emakumeen bilgunea-ren zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea Whatsapp aplikazioko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko.

Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Aita Mariren erreskatesmisioak finantzatzeko

: Itsas Salbamendu Humanitarioak biziak salbatzen eta Giza Eskubideak aldarrikatzen jarraitzeko zure laguntza ezinbestekoa da. Dohaintza egiteko, www.smh.eus web orrian aurkituko duzu.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRACHE
tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

 948 19 70 70

 @Grupolrache

 Grupolrache

 www.tanatoriosirache.es

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 25

ALTSASU Futbito.

Futbito txapelketa, GKSk eta lkasle Abertzaleak-ek antolatuta. Bost eta zazpi pertsonako taldeak. Bertan Topagunearen inguruko informazio puntua eta sarrerak erosteko aukera izango da.
17:00etan, Zelandin.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzu doakoa eta konfidentziala.
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

UHARTE ARAKIL Hitzaldia.

Landatutako bioaniztasuna. Bertako hazien eta barietateen berreskurapena eta mantentzea hitzaldia, Hazien Sarea eta Arakilgo Udaren eskutik. Ondoren, antzinako artzoko produktuen dastaketa eta

erakusketa partehartzailea, Ekotaloren eskutik. II. Arto Jardunaldiaren barruan.
18:30ean, Alhondigan.

ALTSASU Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra, Biak Baten eskutik. Aurretik izena eman behar da.
18:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Kontzertua.

Iluntze akustikoak: Imanol, Andrea, Haizea eta Enara abeslarien kontzertua, Iratxok antolatuta.
19:00etan, Iratxo elkartearen.

LAKUNTZA Ikastaroa.

Lehen sorospen ikastaroa, Alvaro Olano eta Aitor Hernaizekin, Lakuntzako Pertza elkarteak antolatuta. Denentzat.
19:00etan, Lakuntzako Pertza elkartearen.

ALTSASU Antzerkia.

Emakume baten borroka eta metamorfosia antzezlanaren emanaldia: Edouard Lousen eleberraren egokitzapena, amari duintasuna publikoki itzultzeko beharrezko berrelkartze hunkigarria. Eneko Sagardoy aktore bizkaitarra da protagonista, Lucia Quintana y Vito Rogado aktoreekin batera; seme baten eta haren amaren arteko elkarriketa da antzezlanaren oinarria. Euskaraz. Sarrerak: 8 euro.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Bertso afaria.

Sustrai Colina eta Aitor Mendiluze bertsolariekin bertso afaria, Karriestu elkarteak antolatuta.
21:00etan, Karriestu elkartearen.

LARUNBATA 26

UHARTE ARAKIL Jardunaldiak.

II. Arto Jardunaldiak:
10:00-13:30 Arto uzta jasotzea (txandaka), talo postua, arto hazien banaketa eta Nafarroako Hazien Sareko postua.
14:00 Haurrendako doako talo tailerrak.
15:00-18:00 Arto uzta jasotzea (txandaka), talo postua, arto hazien banaketa eta Nafarroako Hazien Sareko postua.
18:00 Haurrendako doako talo tailerrak.

ALTSASU Tailerra.

Ongi zaintzen eta maitatzen ikastea tailerra, Kontxi Lopez Soriaren eskutik, EMAIk antolatuta: "Geure burua nahiz beste batzuk nola zaintzen ditugun hausnartuko dugu. Norbere zaintzarako espazioa eraikiko dugu, sentimendu desatseginak eraldatzen joateko, gu geu zaintzeko eta hobeto sentitzen ikastea". Gaztelaniaz.
10:00etatik 13:00etara, Gure Etxean.

ITURMENDI Jaialdia.

Iturrock jaialdia.
12:00 Jolasak.
13:00 Frito-pote.
15:00 Bazkaria.

Ondoren, bingo musikatua.

20:00 Txalainak; Hertzainak taldearen tributu akustikoa.
23:30 Barrena; Barrikadaren tributu.
01:00 Muga Zero.
02:30 Hasta la Polla; La Polla Recordsen tributu.
Ondoren, musika gaztetxean.

ALTSASU Ikastaroa.

3D Inprimagailuak ikastaroa, Sarean Euskaraz programaren barruan.
18:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Primitl Brothers ahots lauotearen kontzertua: soinu onomatopeikoen bidez umorez eta musikaz beteriko ikuskizuna. Sarrerak: aurretik, 6 euro; egunean bertan, 8 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Antzerkia.

Emakume baten borroka eta metamorfosia antzezlanaren emanaldia: Edouard Lousen eleberraren egokitzapena, amari duintasuna publikoki itzultzeko beharrezko berrelkartze hunkigarria. Eneko Sagardoy aktore bizkaitarra da protagonista, Lucia Quintana y Vito Rogado aktoreekin batera; seme baten eta haren amaren arteko elkarriketa da antzezlanaren oinarria. Gaztelaniaz. Sarrerak ia agortuta.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 27

OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleen mendi irteera: Orhiko tunela eta Iratiko Etxeak, 16,65 kilometroko ibilbidea, 328 metro aldapan gora eta 998 metro gainbehera. Bazkaria: Iratiko Etxeak.
06:00etan, autobus geltokitik.

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Burgosko Mediterraneoko bide berdetik mendi bizikleta ibilaldia: Oña, Traspaderne eta Frias, Sakanako Mankomunitateak eta Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatuta.
07:00etan, autobus geltokian.

ETXARRI ARANATZ Txangoa.

Etxarriko historia eta beheko basoko ondarea ezagutzeko txangoa, Karriestu elkarteak antolatuta; Arkaitz Errazkin eta Manu Gomezen eskutik: Trikuharriak, txondorrak, errota eta harrobiak. Txangoaren erdian gosaria elkarrearen eskutik.
09:00etan, Etxarriko Kanpineko goiko aparkalekuan.

LAKUNTZA Ekimena.

Munduko zerealak, Iñurriyek elkarteak antolatuta.
13:00etan, plazan.

OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Anbotoko Mari antzerki, bideo animazio, interakzio eta musika ikuskizuna: Mariren haizuloan harri magiko bat dago; bertan uzteko esaten dion ahotsari kasurik ez eta Garik lapurtu eta alde egingo du. Anbotoko Mari atzetik abiatuko da. 3 eta 10 urte bitarteko haurrendako bideratuta. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean bertan, 3,5 euro.
17:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Dokumentalaren emanaldia.

Exopia errefuxiatuen inguruko dokumentalaren emanaldia.
18:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Baizera euskal funk taldearen kontzertua, Bira Nafarroan Barna programaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 28

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 29

ALTSASU Tailerra.

Kafe konpondu: etxetresnak konpontzen ikastea tailerra.
17:30ean, Gure Etxean.

BAZKIDE ZOZKETA

Urriko saridunak

1. SARIA
Leire Mendizabal Crespo (Altsasu)

2. eta 3. SARIAK
Juan Ramon San Martin Perez (Etxarri Aranzatz)
Lur Larraza Lopez (Etxarri Aranzatz)
Eduarne Ustarroz Goñi (Uharteko Arakil)



ASTEAZKENA 30

ALTSASU Hitzaldia.
Altsasuko Guraso Eskola, Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.
17:00etatik 18:30era, Gure Etxean.

Altsasu Liburu aurkezpena.
Bernoa liburuaren aurkezpena, Juan Luis Larraza egilearen eskutik. Altsasuko liburutegiak antolatuta, Altsasuko Udalaren babesarekin.
18:00etan, Iortia kultur gunearen hitzaldi aretoan.

OSTEGUNA 31

ALTSASU Topagunea.
Gazte Topagune Sozialista, Gazte Koordinadora Sozialistak eta Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Edukiak jasotzeko epeak hauek izanen dira:

- Gutunak:** Asteartea 10:00ak arte.
- Agenda:** Asteartea 13:00ak arte.
- Zorion agurrak:** Asteartea 13:00ak arte.
- Iragarki laburrak:** Asteartea 13:00ak arte.
- Hil oharrak:** Asteartea 13:00ak arte.
- Eskelak:** Asteazkena 12:00ak arte.

Kontuan har ditzazuen. Eskerrik asko!



12:00 Harrera.
17:00 Hitzaldiak: *Krisi ekonomikoa Europan: egoera eta perspektiba; Gazte eta ikasle mugimenduaren historia Euskal Herrian; Euskarazko literaturarako bide berriak; Emakumeon laneko prekarietatea: erreprodukzioaren merkatua eta sexu industria.*

19:00 Kirol ikuskizuna.
19:00 Kontzertuak: Peio Erramouspe, Sara Zozaya, Mirua, DJ Ander Iraizoz eta DJ Gordon.
21:30 Boxeo belada. Ondoren, kontzertuak: Rebel Noise, The Clayton eta DJ Mondongo.

IRURTZUN Gau Beltza.
Ibilbide beltza: Misterioz eta Mitologiagaz beteriko ibilbidea, Iskidiren, Tramankuluren, Musika eskolako trikitilarien, txalapartarien eta Lorena Arangoa, Izaskun Mugika eta Ion Barbarin aktoreen parte hartzearekin. Pikuxarrek antolatuta. Sarrerak: urriaren 25etik aurrera, Pikuxarren; 5 euro eta 3 euro (6 urtetik beherakoek).
17:30etik aurrera, Ardantzetako xendana (eguraldi txarrearekin, Atakondoan).

LAKUNTZA Gau Beltza.
Tailerrak.
Arratsaldean, plazan.

ALTSASU Gau beltza.
Gau beltza, Iñigo Aritz ikastolak antolatuta.
19:00etan, Txiokan.

IRURTZUN Kontzertua.
Kivi Children's Choir Lituaniako Vilniuko abesbatzaren kontzertua, Nafarroako Abesbatzen Elkartearen Nafarroako Nazioarteko XXIX. Ziklo Korralaren barruan.
19:30ean, San Martin de Tours elizan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La habitación de al lado
Igandea 27 19:30

Rita
Osteguna 31 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

La casa en llamas
Igandea 27 19:00

Tasio, FilMOTEKA Nafarroan
programaren barruan
Astelehena 28 19:00

The miracle club
Osteguna 31 19:00

OSTIRALA 1

ALTSASU Topagunea.
Gazte Topagune Sozialista, Gazte Koordinadora Sozialistak eta Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta.

09:00 5x5 futbito txapelketa.
10:00 Belarrijana podcastaren zuzeneko saioa.
11:30 Solasaldia: Aktualitate politikoa.
17:00 Pilota ikuskizuna.
IAGOMAGO.
18:30 Suhiltzaile erakustaldia.
19:00 Futbito txapelketako finala. Jamaiketako! Reggae pintxada.
22:00 Hondamendia umore ikuskizuna, Antton Telleria eta Asier K-rekin.
Kontzertuak: Desgaraian, Eñaut Elorrieta eta Ibil Bedi.

ALTSASU Kontzertua.
Parranda Los Paperos Kanaria Handiko Vallesecoko taldea eta Trasteando taldearen kontzertua. Sarrerak: 10 euro.
19:30ean, Iortia kultur gunean.



IRURTZUN Erakusketa kolektiboa: Doris Vicente, Agus Lizarraga eta Luisa Aldaburu margolarien lanen erakusketa.
Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.



ALTSASU Artekleta. Bizikletari bide: jasagarritasuna, artea eta Sakana. Sakanako artistek bizikletekin egindako artelanen erakusketa. *Altsasu BHI*n.



ALTSASU XIII. Arte Azoka, Artebide taldeak antolatuta.
Azaroaren 17ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 19:45era, larunbatetan ikuskizuna baina ordu bat lehenago eta igandetan 17:30etik 20:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

EMAKUME PREFERENTEA

5. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Gares 2-1

SAILKAPENA
EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 15
2 Gazte Berriak 9

HURRENGOA
URRIAK 27, IGANDEA

16:00 V. de Egües - Altsasu (Sarriguren)

Altsasu liderra Egüesen kontra
Altsasuk orain arte jokatutako partida guztiak irabazi ditu, eta hala segi nahi du.

GIZON ERREGIONALA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Lagunak B 4-0
Etxarri Aranatz - San Jorge 1-1
Arga Ibaia - Lagun Artea 2-2

SAILKAPENA
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 18
4 Etxarri Aranatz 12
10 Lagun Artea 9

HURRENGO JARDUNALDIA
URRIAK 26, LARUNBATA

16:00 Lagun A. - Kirol Sport (Zelai Berri)
18:30 Berriozar - Etxarri (Berriozar)

URRIAK 27, IGANDEA
16:00 Rotxapea B - Altsasu (El Irati)

Altsasu, lider sendoa
Altsasu lider jarri da orain arteko sei partidak irabazi eta gero. Rotxapea B-ren kontra bide beretik jarraitu nahi du, lidergoari eusteko.

Etxarri vs Berriozar, arerio zuzenak
Etxarrik hiru puntura du sailkapenean hirugarren den Berriozar. Beraz, goiko postuetara gerturatzeko aukera paregabea.

Lagun Artearen aukera
Lagun Arteak sailkapenean zazpigarren den Kirol Sport arerio zuzena hartuko du. Gora begiratzeko aukera ederra dute lakuntzarrek.

ARETO FUTBOLA
Talde sakandarrak, bide onean

Hirugarren mailan Aralar Mendik hiruna berdindu zuen Kirol Sportekin eta gaur, ostirala, 20:00etan, Ribera de Navarra hartuko du. Lehen Autonomikoan Arbizuk 6-0 irabazi zion Oliteri eta Altsasuk hiruna berdindu zuen Mendialdearekin. Gaur, ostirala, 20:00etan, Canteraren kontra jokatuko du Arbizuk, eta Altsasuk atsedena du. Emakumeen lehen senior mailan Xotak garaipena lortu zuen Tafari 3-1 irabazita. Bihar, 18:00etan, Gazte Berriak du arerio.

Erkuden Moreno, urrezko domina Mallorcan

TAEKWONDOA Larunbatean III. Mallorca Taekwondo Opena jokatu zen, eta Nafarroako Taekwondo Federazioak sei domina ekarri zituen bertatik, tartean Erkuden Moreno Muñoz altsasuararren urrezkoa

M.B.G. ALTSASU
Velodrom Illes Balears-ek III. Mallorca Taekwondo Opena hartu zuen larunbatean. Nafarroako Taekwondo Selektzioko 10 borrokalarik parte hartu zuten, tartean Erkuden Moreno Muñozek. Altsasuarra Altsasuk Bargagain eta Lezkairu taekwondo klubetan trebatzen da, Altsasuk irakasle Gerardo Montero, aldi berean, Lezkairuko klubeko irakaslea ere badelako.

Nafarroako selektzioak lan bikaina egin zuen. Sei dominekin itzuli ziren Mallorcatik: urrezko hiru domina, zilarrezko bi domina eta brontzezko domina bat. Urrezko dominetako bat Erkuden



Moreno, ezkerretik hasita hirugarrena.

Morenok lortu zuen. Altsasuarra senior mailako 46 kg azpiko mailan lehiatu zen, eta finalerdietan sartu zen lehian. Finalerdietan Kataluniako txapeldunorde Lucia Sanchez hartu zuen mendean (2-0). Final handian 2021eko kadete mailako Espainiako txapeldun Judith Gonzalez sevillarra izan zuen aurkari. Moreno ezin hobe aritu zen eta final borrokatua irabaztea lortu zuen, urrezko domina jantziz.

Bestalde, irailaren 14an Bargagaingo Irea Etxanizek Espainiako kadete eta 21 urtez azpiko txapelketan parte hartu zuen, eta 33 kg azpiko mailan brontzezko domina lortu zuen.

Botxalari finenak

BOTXA Egunotan Binakako Botxa Txapelketa jokatu da Irurtzungo Iratxo elkarteko botxategian, giro onean. Guztira zortzi bikotek hartu dute parte, bi multzotan banatuta, eta final estuan Mikel Golderazena eta Floren Beraza izan ziren txapeldunak, Xabiri eta Geaxiri 6-15 irabazita. Migel eta Mikel hirugarren sailkatu ziren, eta Maribi eta Alizia laugarren.



IRATXO

Pasang Temba, Altsasura

MENDIA 1980ko maiatzaren 14an Martin Zabaleta hernaniarrak eta Pasang Temba sherpak Everesteko gailurrean ikurriña jarri zuten. Asteburuan Euskal Herriko Alpinismo Federazioaren mendeurrenako galan omenaldia egin zieten, baita San Mamesen ere. Tembak hitzaldi solidarioa emango du Altsasuk lortia Kultur Gunean, azaroaren 8an, 19:00etan.



KRONIKA

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ
Koadro alaiaren txapelketa pil-pilean dago. Lau eta Erdiko B Seriean edo promesen mailan, Joanes Bakaikoa Satrustegi aurrelari etxarriarrak ezin hobe ekin dio txapelketari, final-laurdenetako ligaxkako lehen jardunaldian Iosu Eskirozi irabazi baitzion. Gaur, ostirala, Julen Egiguren du aurkari, Tafallan. Joan zen urtean ezin izan zenuen Lau eta Erdiko B Seriean parte hartu, ezker belauneko aurreko lotailu gurutzatua bihurritua izan zenuelako. Iaz gaizki pasatuko zenuen, baina urtebete barru txapelketan murgilduta zaude bete-betean. Kirolari batek egunerokoa bizi-tzen du, zalantzarik gabe. Joan zen urtean oso gustura nengoen, txapelketa hasteko prest, eta momentu batetik bestera dena aldatu zen. Pena handia izan zen, baina buelta eman nion, eta orain ongi nago, arazorik gabe eta ilusioarekin.

Lau eta Erdiko B Seriea irabazteko faborito nagusien artean zaude, Asier Agirrerekin eta Julen Egigurenekin batera. Zuk koadro alaie-tako bi txapela dituzu, 2018koa eta 2021koa, Asier Agirrek beste bat, 2017koa, eta Egigurenek ez du txapelik, baina txapeldunordea izan da bitan. Faboritoen etiketarekin ados zaude ala hori kantxan demostratu behar da?

Halakoei ez diet garrantzirik ematen. Katedrak hala prentsatzzen badu, pozik, baina faborittoa izan edo ez izatea ez zait axola. Askotan ikusi da hori gero kantxan demostratu behar dela. Ni nire jokoa zentratzen naiz; ahalik eta goren iristen saiatuko naiz, ea zortea dagoen.

Final-laurdenetako ligaxkan sartu zara lehian. Igandean Labriten Iosu Eskirozen kontra jokatu zenuen ligaxkako lehen jardunaldia, eta 22-11 irabazi zenion. Serio aritu zinen, eta alde handiz nagusitu zinen.

Partida errazik ez dago. Iosuk aurreko astean Alberdiri erraz irabazi zion, eta oso pilotari ona da. Atzelaria den arren, oso ongi moldatzen da lau eta erdian, eta banekien ez zela erraza izango. Hasieran sufritu nuen, eta berak oso ongi jokatu nuen. Bigarren zatian, aldiz, disfrutatu nuen; hobeki jokatu nuen, eta eginda-koarekin pozik gelditu nintzen. Eskiroz da da promesen lau eta erdiko final laurdenetan jokatzen ari den atzelari bakarra. Azken urte hauetan oso atzelari gutxik lortzen

dute banakako txapelketetan aurrera egitea.

Gaur egungo jokatzeko modua- rekin oso zaila da atzelariak banakakoetan aurrera egitea, eta lau eta erdian buruz burukoan baino zailago. Oso azkar jokatzeko da, eta airez pilotakada asko ematen ditugu. Aurrelariak ohituta gaude, aurrean jokatzeko dugulako, baina atzelariendako erronka zaila da, lau eta erdian aurrean jokatu behar delako.

Labriten jokatu zenuten, baina igandean. Nonbait enpresek proba egin nahi zuten Bomboneran igandean programatzea interesgarria ote den ikusteko. 570 ikuslerek, ez zen bete. Arraro egin zitzaizun igandean Labriten jokatzeko?

Bai. Labriten beti larunbat arratsaldeetan jokatzera ohituta gaude, eta gure artean komentatu genuen igandean jokatzeko arraroa izan zela. Giroa lasaia zen, ez zegoen larunbat arratsaldeetako festa giroa eta buila, goi alde horretan batez ere. Eta ikusleak adinez nagusiagoak ziren. Dena den, gu esaten digutenera egokitzeko gara, eta Labriten beti gustura jokatzeko da.

Katedran entzuten hasia da larunbateko festa giro hori ez omen den bere onetik atera. Halakoak kontrolatzea zaila da.

Zaila da, bai, baina gai hori ez dago gure esku; beste batzuen erabakiak dira. Gu programatzen diguten aldiro gustura joango gara Labritera jokatzera.

Hurrengo arerioa Julen Eguiguren duzu. Partida gaur, ostirala, jakutuko duzue Tafallako Ereta pilotalekuan. Eguiguren promesen lau eta erdiko azken bi edizioetan txapel-dunordea izan da. Beraz, partida gogorra duzu aurretik.

Bai, zalantzarik gabe. Azkeneko bi edizioetan finalera iritsi da, eta hori oso pilotari fidagarria eta erregularra delako da. Partida ona egingo du, ziur. Oso pilotari segurua da, eta oso gogorra. Badakit arerio zaila dudala.

Zein izango da estrategia?

Azkenean, lau eta erdian ez dago sekreturik. Hasteko, berak baino abiadura gehiago ematen saiatu beharko naiz, eta, bigarrenik, bera defentsan ni baino denbora gehiago egotea lortu beharko dut. Bigarren partidaren konfiantza gehiagorekin jokatzeko saiatuko naiz, eta lana hobeki egingen; ea irabazteko aukera dudan.

Sakea ezinbestekoa da kaiolan.

Zalantzarik gabe. Sakea oso garrantzitsua da, eta sakeari esker

"Lau eta erdian ez dago sekretu handirik: sakea, abiadura, erasoa"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI BAIKOKO PILOTARIA

PILOTA Lau eta Erdiko B Serieko final laurdenetako bigarren jardunaldian, Eguiguren du arerio gaur etxarriarrak. Ongi hasi du txapelketa, eta pausoz pauso joan nahi du



Joanes Bakaikoa faboritoen etiketari ez dio garrantzirik ematen. BAIKO

abantaila hartzea. Errestoan aukera uzten badizu, hor bitan pentsatu gabe agresibo jokatu behar da, erasokor; une horietan ez da espekulatu behar, ez da jokoa pixka bat luzatzen saiatu behar. Hor erasora jokatu behar da, eta konfiantzarekin aritu.

Tafallako Ereta pilotalekua gustuko duzu? Jokoa eragina izan dezake?

Ezin da jakin. Aspaldi ez dut bertan jokatu. Ez da frontoi txarra, baina ez da Labrit eta frontoi industrial horiek bezalakoa; bere berezitasunak baditu. Nik uste pilota dezente ateratzen dela frontoi horretan; hor erasoan dabilenak mina egin dezake, eta defentsan dagoenak sufritu egingo duela uste dut.

Ligaxkako azken jardunaldian Beñat Senarren kontra aritzea tokatuko zaizu.

Eguiguren eta Senarren aurkako partida ikusi nuen, eta oso partida ona iruditu zitzaidan; biak oso ongi ikusi nituen. Partida berdindua izan zen, oso gogorra. Senar ere ongi dabil azken boladan; beraz, bi partida gogor ditut aurretik.

Zein da zure helburua? Gutxienez finalerdietara iristea?

"TXAPELKETA ASTEAK POLITAK DIRA. LANA EGINA DAGOENEZ, DISFRUTATZEKO UNEA DA ORAIN"

Helburu handiak lortzeko helburu txikiak markatu behar dira. Hasierako helburua lehenengo partida zen, partidara ahalik eta hobeak iristea. Oraingo helburua Tafallako bigarren partidara lehenengora baino hobeto iristea da. Eta gero ikusiko da hirugarrenera nola iristen naizen. Egia esan, momentua bizitzen dut, eta orain bigarren partidaren zentratuta nago. Denok dauzkagu helburu nagusiagoak edo epe luzeagoak, baina horiek lortzeko momentukoetan zentratzea da hoberena.

Lau eta Erdiko bi txapela izatea presioa da zuretzeko?

Egun, bat ere ez. Lehenago, agian nahi gabe, buruari buelta gehiago ematen nizekion, baina azken boladan nire helburua da nigan zentratzea, eta batez ere, kantxan disfrutatzea. Azken finean kantxara disfrutatzea irteten gara, gure lana ahalik eta hobeak egitera. Beste gauzetan pentsatzea alferrikakoa da.

Azkenaldian promesen maila oso estu dago. Talde oso ona zaudete.

Bai, oso berdindua dago. Edozeinek irabazi dezakeela esaten dugunean, ez da ongi gelditzeagatik esaten den zerbait. Agian batzuk faboritoxeago ikusten dira, baina hemen mina edozeinek egin al dio edozeini.

Lau eta Erdiko lehen mailan aspaldiko partez ordezkari gabe geratu gara, Joseba Ezkurdia ez baita final laurdenetara sailkatu. Pena da.

Bai. Josebak txapelketak nola prestatzen dituen ezagutzen dut pixka bat, eta topera zegoen, prestateta ona egin du fisikoki, baita frontoian ere. Tamalez, kanporaketa bat partida batera erabakitzen denean, guztia karta batera jokatzen da, eta hori arriskutsua da, niri ere gertatu izan zait. Oraingoan ez zaio atera, baina segi dezala lanean, oraindik sekulako maila duelako. Izango ditu beste aukera batzuk.

Txapelketa asteak nolakoak dira?

Politak. Prestakuntza lan gogorrena aurretik egin dugunez, orain disfrutatzeke unea da. Ez lesionatzea eta partidetara ahalik eta freskoen iristea, hori da gakoa. Bestalde, aspertzeko denbora gutxi dut. Goizero Gasteizera noa ikastera, eta arratsaldeetan entrenamenduak ditut. Okupatuta nago.

Azaroaren 16ko Labriteko final handira sailkatzea...

Sekulakoa litzateke, oso polita. Bertan egoten saiatuko naiz.



Ikastetxeen Arteko XLIII. Krosa Altsasuko Foru plazaren inguruan jokatu zen.

Lasterketaren itzulera gozoa

ATLETISMOA lazko hutsunearen ondoren, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak XIV. Onddo Lasterketa eta Ikastetxeen Arteko XLII. Krosa antolatu zituen Altsasuko ferietan. San Silvestrea eta Altsasuko Krosa, Nafarroako Txapelketa izango dena, dira hurrenak

M.B.G. ALTSASU

Joan zen urteko Altsasuko feriek hutsune nabarmena izan zuten: Onddo Lasterketaren eta Altsasuko Ferietako Ikastetxeen Arteko Krosaren falta. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Altsasuko Udalak arazoa izan zuten dirulaguntzen kontura, eta klubak proba ez herrikoia ez antolatzea erabaki zuen. Lasterketen falta asko nabaritu zen, izan ere, Altsasu eta atletismoa elkarri lotuta baitira aspalditik. Gogora ekarri behar dugu iaz, Nafarroako Atletismo Federazioaren mendeurreneko galan, Altsasu herriak 100 urte hauetan atletismoa sustatzeagatik urrezko intsignia jaso zuela. Klubaren eta udalaren arteko arazoak konponduta, aurtengo ferietan normaltasunez jokatu ziren XIV. Onddo Lasterketa eta Ikastetxeen arteko XLII. Krosa.

180 partaide inguru

Dantzaleku Sakana klubak ondokoak jaiotzen diren paraje ederrean barna 7 km-ko zirkuitua prestatu zuen. Oinezko ibilbidea egin zutenak 10:30ean abiatu ziren eta korrikalariak 11:00etan, askok aurtengo kamiseta jantzita zutela. Guztira 180 partaide inguru izan zituen ekimenak. Tartean ikastetxeen arteko krosaren parte hartu zuten 36 neska-mutilak zeuden. Bukaeran, ondoko saskiak zozketatu ziren.

Antolatzaileek balorazio ona egin dute, txikien parte hartzea jaitsi izana salbu. "Eskola arte-

ko krosa atzeratu genuen, 12:00etara, eta ez dugu asmatu, besteak beste erraldoi eta buhriendien kalejirarekin bat egin zuelako. Datorren urtean hobe ki planifikatu beharko dugu egutegia, ekimenek bat egin ez dezaten. Agian ordu erdi aurreratu beharko ditugu ordutegiak" azaldu du Dantzaleku Sakanako Peio Vergarak. Bestela, egunarekin "oso pozik" dago antolakuntza. "Eguraldi ona egin zuen, eta guztia primeran atera zen".

Dantzalekuko batzarra

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko bazkideek batzarra dute bihar, larunbata, 12:00etan, Gure Etxean. Klubaren egoera, eskola, materiala eta bestelako gaiak landu ondoren, klubeko zuzendaritza batzordea berrituko da. Gazteenek ardura nagusiak hartuko dituztela aurreikusten da.

ILBELTZAREN 12AN ALTSASUKO KROSA JOKATUKO DA, NAFARROAKO TXAPELKETAN



Emakume talde bat Onddo Lasterketan.



Gazte kuadrillak ere animatu ziren.

Nafarroako Kros Txapelketa

San Silvestrea izango da klubak antolatuko duen hurrengo proba –aurtengoa 45. edizioa izango da–, baina ilbeltzaren 12an Dantzalekun jokatu den Altsasuko Krosa, aldi berean Nafarroako Kros Txapelketa izango dena, prestatzeko nahikoa lan dute Dantzalekukoek. "Nafarroako Atletismo Federaziotik konfirmatu berri digute, gurea Nafarroako Txapelketa izango dela. Pentsatzekoa da distantzia luzekoa izango dela, 10 kilometrokoa, baina oraindik ez dakigu".

Ekimena Dantzalekun, merenderoetatik abiatuko den 2 km-ko kros zirkuitu iraunkor ederra mustutzeko probestuko du klubak. "Altsasuko Udalarekin adostasunera iritsi gara, urtean bitan ibilbidea garbitu eta mantenua egiteko. Oinez edo korrika egiteko zirkuitu ederra da".



Txikienak gustura aritu ziren.

Gaurik luzeena

Urriaren 31n Gau Beltza edo Arimen Gauda izanen da. Garai batean baserri giroko ospakizun bat zen, denborarekin galdu zena. Euskaltzaleen Topaguneak urteak daramatza tradizioa ikertzen eta sustatzen; herriek eta auzoek lekukoa hartu dute

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2019. urtean Euskaltzaleen Topaguneak garai batean ospatzen zen Gau Beltza "berrasmatzeko" bidea hasi zuen, Andoni Urzelai Topaguneko kideak azaldu duen bezala: "Bazen zenbait ohitura berrasmatzeko merezi zutenak; Gau Beltza horietako bat da". Urriaren 31n, Domu Santu egunaren bezperan, ospatzen da, mundu anglosaxoian *Halloween* ospatzen duten egunean. "Mundu global honetan ospakizun horiek indar asko hartzen ari ziren, eta konturatu ginen hemen, Euskal Herrian, betidanik izan dugula egun hori ospatzeko ohitura bat: Gau Beltza edo Arimen Gauda". Iosu Ozaita antropologoak ospakizunaren inguruko ikerketa egin zuen, eta Jaime Altunarekin *Itzalitako kalabazaren berpiztea* lana kaleratu zuen ere. "Horri segika hasi ginen Gau Beltza sustatzen; dokumental bat egin genuen, zenbait material sortu genuen..."

Topagunetik formazio saioak egiten hasi ziren, "apur bat berria zen; berria ez, baina jende askok ez zuen ezagutzen, eta oinarri teoriko bat emateko, jatorria nondik datorren eta Gau Beltza kokatzeko". Bost urte hauetan "sekulako" zabalkundea izan duela esan du Urzelai: "metxa piztu da eta herri askotan ospatzen da". Sakanan Irurtzun izan zen lehenengoa; *Ibilbide Beltza* deitutako ekimena ospatzen du urtero Pikuxarrek eta Aizpeak. Urteekin zenbait herritan zabaldu da eta Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun eta Altsasun ipuin kontaketa, makillaje eta mozturro tailerrak, eskeak eta abar antolatzen dira.

"Harrigarria izan da. Hor ikusten da jendeak badaukala nola-baiteko bereizteko gogo; oso azkar hedatu da, eta gainera oso modu onean". Jendeak Gau Beltzaren ezaugarriak bereak egin dituela gaineratu du Urzelai.

Garai batean Gau Beltza "oso baserri mundukoa" zen: "Oso lotuta zegoen solstizioei, neguaren etorrerari, lurrari... Era berean arimak hurbiltzeko eta horrelako gauzeekin ere zerikusia zuen". Euskal Herrian azken hamarkadatan "oso nukleo urbanotarako bidea" egin du, eta ohitura galtzen joan dela esan du Urzelai, "beste gauza asko bezala, erabat logiko eta normala dena". Landa mundutik hiri mundura pasatzekoan ohiturak eta beharrak aldatzen direla gaineratu du.

Baloreak

Urteko gaurik luzeena da urriaren 31 eta ohitura urteko aro desberdinak ospatzeari lotuta zegoen, "gaur egun gauza horiei oso garrantzia gutxi ematen diogu". Topagunetik ospakizuna gaukortzen saiatu dira: "Garbi dago ezin dela garai baten moduan ospatu, adibidez, baserriaren bidean kalabazak hustu eta argia jarri... Hil den pertsonari bidea aurkitzen laguntzeko egiten zen, bazegoen logika bat". Ospakizunaren atzean "hainbat sinesmen" zeuden. Hortaz, ospakizuna gaurkotzerako orduan

"MUNDU GLOBAL HONETAN HEMEN BETIDANIK IZAN DUGU HORRELAKO OHITURA BAT: GAU BELTZA"



Irurtzunen egiten dute 'Ibilbide Beltza' ikuskizuna. ARTXIBOA



Gau Beltza Altsasun. ARTXIBOA

"zenbait gauza" mantendu dituzte ere, gehienbat ikonografiari lotuta daudenak; kalabazak, sua, etxean egindako mozturroak... "Gaur egun sustatzen ditugun baloreak euskarari lotuta daude, oso ospakizun euskalduna da; komunitateari lotutakoa da, ez da merkantilista, eta auzo elkarrekin bultzatzen dute; mozturroak etxean dauzkagun trapu zaharrekin egindakoak dira, ez dira erositakoak; naturarekiko errepeta sustatzen dugu; berdintasunaren aldeko aldarria egiten dugu, baita aniztasuna ere". Jaia gaur egungo gizartearen ezaugarrietara gaurkotu dute, "ahal den neurrian".

Komunitatean ospatzen den jai bat dela nabarmendu du

Urzelai: "Egun horretan ospatzen den Halloween, esaterako, beste jatorri bat zuen, zeltetatik dator, baina guztiz galduta dago. Gaur egun jai guztiz merkantilista da; ongi dago, baina guk beste gauza batzuk sustatu nahi ditugu". Garrantzitsua da Gau Beltza antolatzen duten herrietan auzo, euskara edo kultur elkarrekin antolatzen dutela; herritarren elkarrekin".

"SUSTATZEN DITUGUN BALOREAK EUSKARARI, KOMUNITATEARI ETA ABAR LOTUTA DAUDE"

Gau Beltzan aspektu ludikoa heriotzarekiko harremana sendotzeko uztartzen direla esan du Urzelai, "behintzat aintzat hartzeko". Joan direnen memoria oroitzeko modu bat dela gaineratu du: "Hori bai da lan individual bat; Gau Beltzan parte hartzen duen pertsona batek dibertitzeaz gain heriotza buruan eduki dezake eta joan direnak gogoratzeko ariketa egin". Lehen baserrien bidean kalabazak pizten zituzten, arimek bidea aurki zezaten; etxean zeuden trapu zaharrekin mozturrotzen ziren, eta eskean aritzen ziren. "Gaur egun erabat modu desberdinean antolatzen da: kantu eskeak, etxez etxeokak...". Beldurra emateko jai bat den galdetuta, Urzelai esan du heriotzari beldurra kentzeko edo modu naturalagoan tratatzeko modu bat izan daitekeela Gau Beltza: "Gaur egun jai ludiko bat da, dibertitzeko, eta horren barruan beldurra eman daiteke ere: mozturroak, makillajea, ipuin kontaketa eta beste". Urteko gaurik luzeena denez ere beldurrarekin harreman estua duen egun bat da; "formazio saioak eta hitzaldiak ematen ditugunean, dolua nola eraman izan daiteke hitzaldietako bat, beste bat izan daiteke Gau Beltzaren aspektu desberdinak..."

Euskaltzaleen Topaguneak Gau Beltzari buruz egindako lana gaubeltza.eus webgunean ikus daiteke.

Altsasuko ferietako irudirik politenak

40 argazkilarik parte hartu zuten Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Argazki Rallyan. Ferietako igande goizean argazkiak egin, eta eguerdian erakutsi zituzten eta sari banaketa izan zen, Gure Etxea eraikinean

ALTSASU

Altsasuko ferietako igande goizeko giroa argazki kameraren bidez hartzea da, oinarrian, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen Argazki Rallyaren helburua. Aurten argazki lehiaketaren 38. edizioa izan da, eta dagoeneko urriko azokako ezinbesteko ekimen bat bihurtu da. Bi kategoria zeuden, haurrak eta helduak, eta guztira 40 argazkilarik parte hartu zuten. Egunean zehar egindako argazkiak, eguerdian Gure Etxean ikusteko aukera izan zen; sari banaketaren ekitaldia ere egin zuten.

Argazki Rallyan parte hartu zuten argazkilariek antolakuntzak proposatutako gaien inguruko irudi bana hartu behar zuten; gaiak Altsasu eta bere feriak, umorea, Palestina, ilusioa eta betetaria ziren. Ferian eta herrian egindako argazkiak goizean entregatu behar zituzten, eta eguerdi aldera irudien proiektzioa egin zen, epaimahaiak erabakia hartzen zuen bitartean.

Azken urteetan egin bezala, sari banaketa egunean bertan egin zuten, eta Bilduma Hoberenaren lehenengo saria Gurutze Langarika Urbitartek irabazi zuen. Bigarren saria Jose Luis Rodriguez Morenendako izan



Argazki Rallyaren 2024ko irabazleak. NEREA MAZKIJARAN / D. NOTICIAS

zen eta hirugarren saria Jose Benegas Floresek irabazi zuen. Altsasuren argazki hoberenaren saria Gorka Gomez Etxebarriak jaso zuen. Haurren kategorian bi sari banatu zituzten: Irune Negredo Hualdek irabazi zuen lehenengo saria eta Mikel Arratibel Lakuntzak bigarrena.

Argazki rallyak

Altsasuko ferietako Argazki Rallya ferietako tradiziozko ekimen bat izateaz gain, Euskal Herrian antolatzen diren beste hamahiru argazki rallyren He-

rriz herri Argazki Rallyen Txapelketarako baliagarria da, eta Euskal Herri osotik gerturatzen dira argazkilariak.

1985. urtean antolatu zuen Altsasuko Mendigoizaleak taldeak lehendabiziko aldiz ferietako argazki rallya, eta pandemia izan ezik, urtero antolatu dute. Duela zenbait urtera arte sari banaketa azaroan egiten zuten, baina "hotz" gelditzen zenez egunean bertan egitea erabaki zuten, eta eguna "luzatzen" den arren, formula gusatatu zaie.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

'Ronson'

Ronson izena entzun nuen lehengo aldia irratian izan zen. Cesar Sebastianek, *Ronson*en autoreak, Valentziako komiki azokako saria irabazi zuen. Beste hainbat sari irabazi zituen estatuan barna, eta Bartzelonako komiki azokan irabazi ez bazuen ere, finalista izan zen. Hau izan zen komiki honengan interesa piztu zidan lehen gauza.

Nire buruan, Cesar Sebastian ilustratzailea eta idazlea zen. Gaur eguneko komikiaren merkatua momentu arraroan dago. Gero eta autore gehiago daude, inoiz baino dibertsitate eta askatasun handiagoa dago argitaratzeko. Batetik, gauza oso positiboa dugu hau. Bestetik, merkatua oso konpetitiboa bilakatu da. Autoreek zaila dute edonondik atera eta saturatuta dagoen merkatu batean besteengandik bereizteko.

*Ronson*ek bigarren aldiz harritu ninduen behin liburutegira hurbildu eta ene eskuetan izan nuen. Izan ere, liburu fisikoa modu bitxian argitaratu dute *Ronson*. Hasteko, liburuaren azala

kartoi hutsa da, eta bizkarra, hori okre bat. Bertan, *RONSON* idatzita. Komiki osoa 3 kolorek osatzen dute: txuriak, beltzak eta okre berdexka batek. Cesarren marrazketa estilo naturalista eta lerro argidunak, eta komikiaren orrien arkitekturak, karratu erregularrez osatua, diskretuki ezkututzen dute Cesarren presentzia. Narratzaileari uzten diote protagonismo guztia hartzen, eta mezua argi iristen zaio horrela irakurleari.

*Ronson*ek guztiz hunkitu ninduen hirugarren aldia, irakurtzez bukatu nuenean izan zen. *Ronson*ek frankismo garaian hezitako ume baten haurtzaroko bizipenak kontatzen dizkigu, argumentu edo trama finko bat jarraitu gabe. Autoreak berak esaten du elkarrizketa batean: "kontatutako istorio gehienak nire aitak bizitako kontakizunak dira (...) Nire helburua herriaren historiaren kronika egitea zen, baina sermoirik eman gabe eta gehiegi epaitu gabe, gertakizun onak kontatuz eta iragana idealizatzetik ihes eginez".

Polita bezain latza den komikietako bat da *Ronson*, bizitza bera bezala.

Deserrite talde burundarraren kontzertua, bihar, Iruñean

Navarra Music Commissionek sortutako 'Kuxkuxean' programaren barruan diskoaren aurkezpena egingen du

ALTSASU

Aurreko urtearen hasieran kaleratu zuen Deserrite taldeak bere lehenengo diskoa, eta orduetik ez da eszenatokietatik jaitsi; bihar, larunbata, Zentral 2 aretoan kontzertua emanen du, Navarra Music Commission erakundeak antolatutako *Kuxkuxean* zikloaren barruan. Ateak 21:30ean irekiko dituzte eta kontzertua 22:00etan hasiko da. *Taquilla inversa*-ren formula izanen da, eta ikuskizuna amaitzean norberak erabakiko du zenbat ematen duen.

Iñaki Gasko eta Gaizka Okaña gitarra joleak, Luken Goikoetxea bajistak, Hodei Alegre bateria joleak eta Jesus Palop abeslariak osatzen dute Deserrite taldea; 2020an sortu zuten, eta 2023an kaleratu zuten taldearen izen bereko diskoa zazpi abestirekin.

Kuxkuxean Navarra Music Commissionek herrialdeko talde berriak sustatzeko eta haien lana aurkezteko antolatu duen programa bat da. Guztira, programaren barruan sei kontzertu izan dira, tartean bihar talde sakandarrak emanen duena.

Trasteando, Haize Berriak banda eta haien lagunak, Iortian

Azaroaren 1ean Altsasuko taldearen kontzertua izanen da, eta 2an Sakanako bandarena; ez dira bakarrik izanen

ALTSASU

Trasteando taldearen eskutik Kanaria Handiko Parrando Los Paperos taldearen kontzertua izanen da, azaroaren 1ean, ostirala, 19:30ean. Iortia kultur gunean. Manuel Falconek 1991. urtean

sortu zuen taldea, eta 2017. urtean Raul Falconek taldearen zuzendaritza hartu zuen. 25 kidek osatzen dute taldea, eta kanariar eta Hego Amerikako doinuak interpretatzen dituzte. Sarrerak 10 eurotan eros daitezke.

Azaroaren 2an, larunbata, Haize Berriak bandak Garikoitz Mendizabal txistu maisuarekin kontzertua emanen du, 19:00etan, Iortia kultur gunean. Kontzertu "bakarra" izango da, eta txistua izanen da protagonista; horretarako instrumentua interpretatzeko modu desberdinak erakusten duen eta Mendizabal berak sortu dituen lanak interpretatuko dituzte. Bandako bazkideek sarrerak 3 eurotan eros ditzakete, eta 5 eurotan sarrera arrunta.



XIII. Arte Azokaren mustutzean jende ugari egon zen.

Arte erakusketa bat baino gehiago

Hamahirugarren Arte Azoka mustu zuten irailaren 18an, Altsasuko ferietako egitarauaren barruan, lortia kultur gunearen erakusketa aretoan. Sakanako hainbat artistaren lanak biltzen ditu erakusketak, baita artista gonbidatuen lanak ere

ALTSASU

Txalaparta doinuekin hasiera eman zioten XIII. Arte Azokari urriaren 18an. Arte Azoka Altsasuko ferien baitan Artebide elkarteak egiten duen erakusketa da; ibarreko hainbat artistak parte hartzen dute, baita gonbidatutako zenbait artistak ere. Hamarkada bat baino gehiago darama Sakanako artearen erakusleioa izaten. Azaroaren 17ra arte egonen da ikusgai, Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

Altsasuko ferietan nekazaritza eta artisau produktuen azoka eta ganadu erakusketak dauden bezala, artisten lanekin azoka bat egitea bururatu zitzaion Manolita Thunders artista altsasuarri. Sakanako artistak lanean hasi ziren, Artebide elkarteak sortu zuten, eta haren bidez, duela hamahiru urte, lehenengo Arte Azoka antolatu zuten. Hamahiru edizio pasa dira, eta dagoeneko Arte Azoka erakusketa eta ferietako igandean egi-

ten duten azoka ezinbesteko bat bihurtu da urriko ospakizunetan.

Gutxi gorabehera urtero 30 bat artistak parte hartzen dute Arte Azokan. 2024ko edizioan honako artisten lanak ikus daitezke Iortia-ko erakusketa kolektiboan: Beatriz de la Vega, Joseba Salegi, Patricia Paats, Helena Santano Cid, Marijostai, Lali Burgoa De la Cal, Maite Miguel Zufiaurre, Mikel Montesinos, Sagri Mauleon Ezkutari, Patxi Zelaia Romeral, Jule Costa Mendia, Jesus Mari Olmos Amillano, Argine Berastegi Lizarraga, Carlos Rivera Lauria, Cristina Fernandez, Rosa Arnanz Zufiaurre, Josetxo Crespo Zulet, Txuspo Poyo, Koldo Arnanz Zufiaurre, Alfredo Hoyuelos, Ana Goikoetxea Salazar, Jose Mari Morcillo, Jesus Ignacio Miguel Amoztegi, Adela Sanchez Martin, Txarli Poyo eta Arturo Arrizabalaga. Gainera, Juan Manuel Fernandez Cuichan, Sara Pinto, Hoskai, Cabeza de Artista, Ana Martinez de Eulate, Emilia Centeno Patiño, Raquel Ingles

Craqui eta Labea artista gonbidatuen lanak ere daude ikusgai.

Artearen diziplina ugari biltzen dira erakusketa bakar batean; margolan errealistak, abstraktuak, teknika mistoarekin egindakoak; eskulturak; instalazioak; argazkiak, baita ikus-entzunezkoak ere.

Aldarrikapena

XIII. Arte Azoka erakusketa ikus daitezkeen artelanen artean Dantzalekun kokatuta dagoen Txuspo Poyoren Zuhaitz-etxearen argazkiak daude, bi mezu handiekin: *Ezin dugu gure ondarea galtzen utzi eta Publikoa sendatu, sortu, erein behar da* (gaztelaniaz, *No podemos permitir perder nuestro patrimonio* eta *Lo público debe ser curado, creado, cultivado*). Instalazio honekin 2008. urtean mustutako eskulturaren egoera salatu eta udalari konpontzeko eta zaintzeko mezua helarazi nahi dute; sinadura bilketa egiten ere ari dira, erakusketan bertan.



Diziplina anitzeko artelanak ikus daitezke erakusketan.



Arte Azokaren mustutzean artistak haien lanen inguruko azalpenak eman zituzten.



Margolanak, eskulturak, instalazioak eta abar batzen dira Arte Azokan.



Txuspo Poyoren Zuhaitz-etxearen inguruko instalazioa eta aldarrikapena.

"Fokua nola elikatzen garen jarri behar dugu"

II. Arto Jardunaldiak antolatu dituzte asteburuan, Uharteko Arakilen. Besteak beste, bertako produktuak sustatu nahi dituzte, tartean artoa, Nerea Viana SGako teknikariak, Txomin Uharteko herriko alkatea eta Julen Altzelai Ekotaloko kideak azaldu dutenez

Erkuden Ruiz Barroso UHARTE ARAKIL

1 Zer dira arto jardunaldiak?
Julen. Artoaren ezagutza zabaltzeko jardunaldiak dira. Artoarekin produktu berriak egiten ari gara, eta gure leloa da *Artoa ez da bakarrik taloa* egiteko; artoa zer den erakusteko egin ditugu. Badira arto mota desberdinak. Orduan, egun bat non jendeak artaburuak hartuko dituzte, irekiko dituzte eta ikusiko dute, esaterako, artoa koloretakoa izan daitekeela.

2 Aurtengoa bigarren edizioa da.
Txomin. Aurreko urtean hedapen publikorik ez genuen egin; auzolan txiki batean arto bilketa bat egin genuen, eta horren bueltan eta bertako hazien gaiarekin pentsatu genuen zerbait egin zitekeela. Proposamena hor zegoen eta *ON* horri eman diogu. Arakil aldean sentsibilizazio lan handia egiten ari dira hazien bankuekin, eta gu ere parte gara. Horrelako gauzak sustatzeko eta indartzeko ezin dugu aukera galdu.
Nerea. Arakilgo proiektua martxan jarri zenean eta prospekzioa egin zenean, ez zen artorik, garirik edo garagarririk agertu. Erabat galduta zegoen. Beraz, konturatzen gara gure inguruan landatzen den arto guztia erabat industrialia eta transgenikoa dela, eta abereak loditzera bideratuta dagoela. Oso garrantzitsua da nola elikatzen garen fokua jartzea.

3 Eta zergatik Uharteko Arakilen?
J. Uharteko Arakilek eta biok badaukagu produktore bat amankomunean; etorkizunean gehiago ere izan daitezke. Hemen haziekin lan asko egin dute, eta aukera polit bat ikusten nuen produktore horrekin, Txominekin, udalarekin eta garapen agentziarekin elkarlana egitea. Aurreko urtean zerbait xumea



Nerea Viana SGako teknikaria, Txomin Uharteko alkatea eta Julen Altzelai

egin genuen, azken unean antolatutakoa, eta hurrengo urterako zerbait berezia prestatzea hitz egin genuen; iritsi da.

4 Gaur hazien inguruko hitzaldia izanen da.
N. Jardunaldietan transmititu nahi den hori kontestuan jartzeko da; bertako barietateen berreskuratzea eta mantentzearen garrantzia. Euskadiko Hazien Sareko kide batek emango du hitzaldia eta, ondoren, Arakilgo Udalak berreskurapenaren esperientzia kontatuko du. Dastaketa parte hartzailea egingo dugu ere; esandakoa errealitatera ekarriko dugu. Parte hartzera animatzen dut jendea, polita izango da.

5 Eta asteburuan artoa jasoko duzue.
N. Dena auzolanean zentratu dugu; helburua da auzolanean artoa biltzea. Esperientzia horren barruan Ekotaloko taloak dastatuko dituzte ere, eta umeendako talo tailerra izango da. Bertan Arakilgo barietateekin eta Nafarroako Hazien bankuko mahaitxo bat egongo da, eta arto barie-

tateen haziak eskuratzeko aukera izango da ere.

6 Arto mota desberdinak daude. Zeintzuk? Zein da hoberena?
J. Mexikotik gizon bat etorri zen eta esan zuen onena guk erabakitzen duguna izango dela. Denbora eta hobekuntza behar da, eta interesatzen zaizkigun haziak aukeratu. Onena hori da, eta jardunaldietan hori erakutsi nahi dugu ere. Gu kulinarioki gozoenak direnak bilatzen goaz. Motei dagokionez, horiak, beltzak eta abar izan daitezke, eta bakoitzak propietate desberdinak ditu.
T. Aurten hezetasun handiegia- rekin joan da uda, eta hainbat produktuk arazoak dituzten bezala, artoak ere baditu. Datorren urteko eguraldia ez dago gure esku; koloreak eta abar ez ezik, beste hainbat faktore zaindu behar dira ere.

7 Zein da artoaren zikloa?
J. Guk maiatzaren 15aren bueltan ereiten dugu. Ziklo motzekoak irailaren erdialdean jasota zeuden, baina hemengo oraindik bertan dago.

T. Normalean maiatzaren erdialdetik ekainaren hasierara arte. Martin Txiki eta jentilen kondairak ongi azaltzen du noiz jaso behar den.

8 Nolako izan da aurtengo uzta?
J. Aurten nahiko eskasa. Baina uzta eskas den urtean identifika ditzakegu artaburu indartsuenak; zutik dagoen artoa arto ona da eta hazitarako erabiliko da. Beti zerbait positiboa aterata behar da.

9 Zer egin daiteke artoarekin?
J. Galletak, gosarirako *pancake* edo tortitak, risotto moduko bat, krocketak... Dieta oso bat osatu nahi dugu. Prestatzen ditugun produktuak erraz egiteko dira; ur eta olio pixka batekin, erreze-

tak hor daude, baita bideoak ere, jarraitu baino ez da egin behar.

10 Zein da artoaren prozesua?
J. Artoak termotratamendu bat behar du. Krocketak egiteko irinak, adibidez, granometria zehatz bat behar du, eta hemengo errotak batzuetan ez daude horretarako prest. Tragelatinizatzen dugu ere. Artoak sukaldatze momentu bat behar du horrelako produktuak egiteko.

11 Zergatik artoa?
J. Santo Tomas egun batean ikusi nuen jendeak ez zuela talo guztia jaten, gaizki egiten ziotelako. Ideia horretatik hasita artoak eta irina garatzen hasi ginen. Gure taloek ez die jendea gaizki egiten, tragelatinizazio horregatik.

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Behar duzun guztia

MAKETAZIOA KARTEL GINTZA
IRUDI KORPORATIBOAK
K EGUTEGIAK AGENDAK
ROLL-UP PEGATINA
URUAK ANDIKO ARRIAK

BAZKIDEEK
DES KON TU
BEREZIAK

fo

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkcomunikazioa.eus | www.gkcomunikazioa.eus